



# PARTE-HARTZE KULTURALA EUSKAL HERRIAN: MODUAK, ARRAZOTIAK ETA INPAKTUAK



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# PARTE-HARTZE KULTURALA EUSKAL HERRIAN: MODUAK, ARRAZOIAK ETA INPAKTUAK

## 1. Azterlanaren aurkezpena 6

## 2. Parte-hartze kulturala aztertzea: kontuan hartu beharreko elementuak 7

- 2.1. Singularretik pluralera: parte-hartze modu desberdinak 7
- 2.2. Zer aldagaitik nola aldagaira: patroï elitistik patroï omniborora 9
- 2.3. Ikusmolde esplikatzailearen bilakaera 11
- 2.4. Parte-hartze kulturalaren inpaktuak 13

## 3. Emaitzen azalpena: parte-hartze mailak, arrazoiak eta inpaktuak 15

- 3.1. 1. begirada: Faktore esplikatzaileak 16
  - 3.1.1 Parte-hartze kulturalako maila orokorrak 16
  - 3.1.2 Faktore esplikatzaileak parte hartzeko moduen arabera 18
- 3.2. 2. begirada: Parte-hartzearen inpaktuak 21
  - 3.2.1 Gogobetetze-maila orokorrak, gizarte-tolerantzia eta loturak sortzea 21
  - 3.2.2 Parte-hartze kulturalaren inpaktuak dimentsio bakoitzean 23

## 4. Datuek kontatzen dutena: parte- hartze kulturalari buruzko gogoetak 25

- 4.1. Arrazoei buruz 25
- 4.2. Inpaktuei dagokienez 30

## 5. Sintesia eta ondorioak 33

- 1. **eranskina:** Atal metodologikoa 35
- 2. **eranskina:** Eredü bakoitzaren estandarizatutako B koefizienteen taula 41
- 3. **eranskina:** Parte hartzeko moduaren arabeko grafikoak (2. eranskinetako taulako koefizienteak) 44
- 4. **eranskina:** Dimentsio esplikatzaileen arabeko grafikoak (aldagaien xehetasuna) 54
- 5. **eranskina:** Parte-hartze kulturalaren inpaktuen estatistika-probak 58

# LABURPENA

Parte-hartze kulturalari buruzko azterlanek parte-hartze horren zati garrantzitsu bat ahazten dute normalean (praktika aktiboak eta dimentsio digitala). Gainera, arrazoietan fokalizatzen dira normalean, izaten dituen inpaktuak aztertu gabe.

Mugaketa horiek gainditzeko ikuspegi propio bat eraikitzen du azterlan honek, parte-hartze kulturalaren arrazoietan zein bizitzarekin pozik egoteari, gizarte-tolerantziari eta gizarte-kohesioari dagokienez dituen inpaktuetan fokalizatuz. Parte-hartze kulturalaren nozio zabaldu bat erabiltzen du proposatutako ikuspegiak praktika aktibo eta digitalak kontuan hartuz, eta praktikaren –eta ez gustuaren– barietateari erreparatzen dio espezifikoki, barietatean eta intentsitatearen dimentsio konbinatu bat sartzeko. Horrekin batera, arlo psikologikoko faktoreak gehitzen dizkio azalpenari, hala nola motibazioa eta balio pertsonalak.

2018ko Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren datuak erabiltzen ditu azterlanak, aukera paregabeak eskainiz helburu horretarako. Erregresioko eta asoziazio linealeko estatistika-tekniken bidez egiten da datu-analisia, bi ikuspuntutatik: arrazoia eta inpaktuak.

Emaitzek adierazten dute parte hartzeko modu desberdinek ere arrazoi desberdinei erantzuten dietela. Ekonomia- eta hezkuntza-faktoreei ematen zaien lehentasuna dela-eta, azterlanak erakusten du funtsezko faktoreak direla parte-hartze harkorrerako, baina ez gainerako moduetarako (edo ez espero den moduan behintzat) Aldaketa psikologikoak balioesteko garrantzia ere kontuan hartzen dute, baita zenbait faktoreren pisua ere, hala nola adina, sexua, jatorria edo bizilekua. Gainera, elkarketa esanguratsu bat dago parte hartzeko moduen eta bizitzarekiko gogobetetzearen hobekuntzarekin, aukera handiagoarekin lotura sozialak sortzeko eta tolerantzia-maila handiagoarekin kultura-dibertsitatea dela eta.

Emaitzak bereziki interesgarriak dira politika kulturalak parte-hartze kulturalaren oztopoen eta ekitatearen klabeen berriz pentsatzeko. Parte-hartze kulturalaren fenomenoak hobeto ulertzen laguntzen dute eta parte-hartze horren ikerketa hobetzeko bidea marrazten dute.

Geroko ikerketa-ildoak ere zabaltzen dizkiete, interes akademiko orokor zein espezifikokoak Euskal Herriko testuingururako, hala nola faktore esplikatzailerako espezifikoen ikerketan sakontzea edo publiko kulturalen segmentazio edo karakterizazioa.

# SYNOPSIS

Studies regarding cultural participation usually leave out an important part of it: active practices and the digital dimension. They also usually focus on the causes, leaving the impacts untouched.

This study constructs its own approach to overcome these limitations, focussing equally on the causes of cultural participation and its impacts in terms of life satisfaction, social cohesion and social tolerance. The proposed approach uses a widened notion of cultural participation, considering active practices and digital practices, and it concentrates specifically on their variety, and not tastes, to introduce a combined dimension of variety and intensity. Additionally, it adds psychological factors to the explanation, such as motivations and personal values.

The study uses data from the Survey of Cultural Participation in the Basque Country 2018, which offers unique opportunities for this purpose. Data is analysed by means of statistical techniques of regression and lineal association from two perspectives: causes and impacts.

The results show that the different modes of participation also respond to different causes. Faced with the weighting usually granted to economic and educational factors, the study shows that they are key factors, especially in receptive participation, but not for the other modes (or not in the expected way). They also show the importance of considering psychological variables, as well as the weight of factors such as age, sex, origin and place of residence. In addition, there is a significant association between modes of cultural participation and improvement in life satisfaction, with greater opportunities to generate social ties and a greater degree of tolerance when faced with cultural diversity.

The results are of special interest when rethinking cultural policies in terms of barriers to and equality of cultural participation. They contribute to a better understanding of the phenomenon of cultural participation and trace a path towards improved research.

Equally, they open the door to future lines of research, both of general academic interest as well as for specific areas such as within the context of the Basque Country, deepening research into explanatory factors and the segmentation and characterisation of cultural audiences.

# RÉSUMÉ

Les études sur la participation culturelle omettent habituellement une partie importante de cette dernière (les pratiques actives et la dimension numérique). En plus, elles se focalisent généralement sur les causes, sans traiter leurs répercussions.

Cette étude élabore une approche spécifique pour pallier à ces limitations, en se focalisant aussi bien sur les causes de la participation culturelle que sur ses impacts en termes de satisfaction à l'égard de la vie, de la cohésion sociale et de la tolérance sociale. L'approche proposée fait appel à une notion élargie de la participation culturelle, en tenant compte des pratiques actives et numériques, et se centre spécifiquement sur la diversité des pratiques, et non du goût pour ces pratiques, pour introduire une dimension combinant diversité et intensité. Elle incorpore aussi de manière additionnelle à l'explication des facteurs psychologiques, tels que les motivations et les valeurs personnelles.

L'étude exploite des données de l'Enquête de Participation culturelle au Pays basque 2018, qui se prête idéalement à cet objectif. L'analyse des données est effectuée au moyen de techniques statistiques de régression et corrélation linéaire, suivant deux perspectives : les causes et les impacts.

Les résultats indiquent que les différents modes de participation obéissent aussi à différentes causes. Face à la prépondérance habituellement accordée aux facteurs économiques et éducatifs, l'étude montre que ces facteurs sont surtout essentiels pour la participation réceptive, mais pas pour les autres modes (ou pas de la manière attendue). Ils révèlent aussi l'importance de la prise en compte des variables psychologiques, ainsi que du poids de facteurs comme l'âge, le sexe, l'origine ou le lieu de résidence. De plus, on détecte une corrélation significative entre modes de participation culturelle et augmentation de la satisfaction à l'égard de la vie, avec des opportunités accrues de créer des liens sociaux et avec un plus haut niveau de tolérance vis-à-vis de la diversité culturelle.

Les résultats sont particulièrement intéressants pour repenser les politiques culturelles en termes de barrières et d'équité de la participation culturelle. Ils contribuent à mieux comprendre le phénomène de la participation culturelle et tracent la voie pour améliorer son étude.

Enfin, ils ouvrent la porte à de futures lignes de recherche, dans le domaine académique en général comme dans celui spécifique au contexte du Pays basque, telles que l'approfondissement de la recherche de facteurs explicatifs spécifiques ou la segmentation et caractérisation de publics culturels.

# 1. AZTERLANAREN AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak (OVC/KEB) berriki bultzatu du azterlan demoskopiko bat Euskal Herri osoko (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea) parte-hartze kulturalari buruz, 2018a hartuta erreferentzia-urte gisa. Informazio-aberastasun handiko erreminta da, eta datuak ematen ditu biztanleriaren kultura-ohituren dimentsio eta esparrua handi bati buruz.

Interes zientifikoaz haratago, datuen analisiak ezagutza ematen die erakundeei eta sektoreari, politika publikoen eta sektoreen estrategien diseinua hobetzea ahalbidetuz.

Euskal Herriko (EH) parte-hartze kulturalaren radiografia ateratzera zuzendutako lehenengo lanen ondoren<sup>1</sup>, lan honek beste pauso bat gehiago ematen du nola eta nork parte hartzen duten azaltzeko eta ulertzeko bidean.

Txosten honen helburua ez da, hortaz, EHko biztanleen kultura-ohiturak deskribatzea (adierazitako txostenetan egin zen hori), baizik eta ohitura horien faktore esplikatzailak bilatzea. Gainera, parte-hartze kulturalaren inpaktuen gaiari ere ekiten dio azterlan honek. Horrenbestez, begirada bikoitza gauzatzen du:

- \_\_\_ Parte-hartze kulturalaren arazoiei, dimentsio soziologiko esanguratsuak aztertuz.
- \_\_\_ Parte-hartze kulturalaren inpaktuei, bizitzarekin pozik egoteari, gizarte-tolerantziari eta gizarte-kohesioari dagokienez.

Azterlana, horrenbestez, sintesi teorikoko lehenengo atal batean antolatzen da, zeinak estaldura ematen dion ikerketaren hipotesi- eta diseinu-proposamenari, gai honi buruz dagoen literaturarekin eta gaiak izan dituen azken garapenekin bat etorritz.

Ondoren, bi ataletan antolatzen da analisisa begirada bikoitzaren logikari jarraikiz, bakoitzarentzat bere metodologia eta bere emaitzak azalduz.

Emaitza horiekin, eta marko teorikoaren argitan, interpretatu eta eztabaidatu egiten dira lortutako emaitzak. Azkenik, aurkikuntza nagusiak eta etorkizuneko ikerketa-ildo posibleak biltzen dituzte ondorioek.

---

1. Deskripzio-emaitzen txostenak, Euskal Herriko administrazio-lurralde bakoitzarentzat bereiz landutakoak hemen aurki daitezke: [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura\\_ohiturak/eu\\_ohiturak/ohiturak.html](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura_ohiturak/eu_ohiturak/ohiturak.html)

## 2. PARTE-HARTZE KULTURALA AZTERTZEA: KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK

Atal horretan, laburbilduta eta babes teorikoarekin aurkezten da egindako ikerketaren ikuspegia. Atal bat eskaintzen zaio horretarako elementu esanguratsu bakoitzari:

- **Azterlan-xedeari** edo mendeko aldagaiari (parte-hartze kulturala) dagokionez, bi gai nabarmentzen dira:
  - **Zer egiten den** ardatzari buruzkoa: parte-hartze kulturalerako kontzeptuzko hurbilketa eta moduen beharrezko banaketa.
  - **Nola egiten den** ardatzari buruzkoa: *nola* aldagaiari buruz enpirikoki ikusitako parte-hartze patrioiak.
- Parte-hartzearen **determinatzaile esplikatzaileen** beharrezko zabaltzeari buruz.
- Pertsonen **parte-hartze kulturalaren inpaktuei** buruz.

### 2.1. Singularrefik pluralera: parte-hartze modu desberdinak

Parte-hartze kultural gisa zer ulertzen den azalduz hasi behar dugu inertziak saihestu eta ikerketarako erreferentziako testuinguru bat ezartzeko. Pragmatismoagatik, ohikoa da kultura kultura-politiken ohiko xede diren jarduerekin lotzea, praktika kulturei lotzen zaien unibertso sinboliko bat markatuz.

Dinamika hori ez da neutrala termino sozialetan: herritarrek jarduera mota jakin bat propio kulturaltzat ikustea eragiten du horrek. Kulturaren Euskal Behatokiaren Kultura Ohiturei buruzko Panelaren datuak argigarriak dira errealitate horren inguruan: pertsonen beren parte-hartze kulturalaren maila gehitu, atxiki edo gutxitu dutela uste ote duten galdetzen zaienean, haien pertzepzio subjektiboa bat dator jarduera jakin batzuetan beren parte-hartze datuek adierazten duten bilakaera objektiboarekin, hala nola antzerkira, zinera, museoetara, liburutegira eta kontzertuetara joatea<sup>2</sup>. Ez dator bat, ordea, beste mota bateko jardueretan duten parte-hartzearekin, hala nola praktika artistiko amateurrek egitea edo Internet erabiltzea eduki kulturala kontsumitzeko, partekatze edo sortzeko.

Ikerketak berak, zeinak tradizionalki erreferentzia-marko sinboliko erkidearen zati diren jarduerak izan dituen ardatz, indartu egiten du parte-hartze kulturalaz zer ulertzen den aldagaia gainera begirada partziala.

Hori gorabehera, Andrew Miles "Understanding Everyday Participation: Articulating Cultural Values" ikerketa-proiektuko zuzendariak adierazten duenez, parte-hartze aberatseko mundu bat dago normalean kontuan hartzen diren kultura-jardueren erresumatik kanpo<sup>3</sup>. Arreta biltzen ari den ikuspegia da, premia eta errealismoa tarteko. Horren adibide argia dugu Bartzelonak Kultura Premiei buruzko Inkesta, gutxi konbentzionala den diseinuarekin<sup>4</sup>.

2. Kulturaren Euskal Behatokia (2019) *Kultura Ohiturei buruzko Panela: 6. jasoaldiko datuen analisisa*

[https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_kultur\\_ohitura\\_panel2019\\_6/eu\\_def/adjuntos/kultura\\_ohiturak\\_panela\\_emaitza\\_txostena\\_6.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_kultur_ohitura_panel2019_6/eu_def/adjuntos/kultura_ohiturak_panela_emaitza_txostena_6.pdf)

3. Miles A (2016) "Telling tales of participation: exploring the interplay of time and territory in cultural boundary work using participation narratives", *Cultural Trends*, 25 (3): 182-193

4. Bartzelonako Institut de Cultura (2020) *Encuesta de participación y necesidades culturales de Barcelona*:

[https://barcelonadescultura.bcn.cat/wp-content/uploads/2020/04/EncuestaCultura2019\\_Informe\\_ES.pdf](https://barcelonadescultura.bcn.cat/wp-content/uploads/2020/04/EncuestaCultura2019_Informe_ES.pdf)



Bereziki, bilakaera digitalak begirada zabaldu egin du parte-hartze kulturala jardueren multzo mugatu batekin lotzen duen kultura-imaginarioa gainditzeko. Arlo digitalak erabiltzaileen rol aktiboarekiko zabaldutako posibilitateek kultura-jarduerak bertaratzeaz haratago doan garrantzia berriro balioestea ahalbidetu dute, herritarrek kultura edukien hartzaileak izateaz gain eduki horien sortzaileak ere direla biltzen duen ideia indartuz.

Aldi berean, kultura-arloko politika publikoek beren gain hartzen dute, halaber, salbidea erraztuz kulturaren demokratizazioa sustatzeaz gain, kultura-demokraziaren ikuspegitik lan egin behar dutela: parte-hartze aktiboa, eta pertsonen gaitasun sortzaile eta espresiboa sustatzea.

Prozesu mantsoa bada ere, parte-hartze kulturalaren ikuskera zabaldia ezartzen lagunduko du horrek guztiak. Politika publikoan berriz pentsatzeko beharrezkoa den markoa bat da, egungo zirkunstantzietara egokituta. Horrela, adibidez, Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestak berak parte-hartze kulturala fokua zabalduz atzitzea ahalbidetzen du, bi ardatz gurutzatuz:

**1. Parte-hartze harkorra** (kultura-jardueren kontsumo eta praktika pasiboa, ikusle gisa) **parte-hartze aktibotik** (kultura-jardueran lehenengo pertsonan egikaritzea, kulturaren sortzaile edo transmititzaile gisa) bereiziz, tradizio analitiko britaniarrari jarraikiz.

**2. Dimentsio analogiko edo fisiko** baten eta beste **dimentsio digital** baten posibilitateak kontuan hartuz. Bereizketa hori jarduera zein bitartekotan egiten den bereizteko egiten bada ere, alor digital bat eta beste alor fisiko edo analogiko bat egoteak helburuan aldaketa bat egotea dakar halaber. Hau da: ingurune baten eta bestearen arteko aldea eta horren posibilitateek funtsezko aldaketa dakarte.

Adibide gisa, parte-hartze moten honelako ideia nagusi bat marrazten du honek:

### PARTE-HARTZE HARKORRA

Antzerkira joatea  
Kontzertu batera edo zinera joatea  
Museo bat bisitatzea  
Liburu bat irakurtzea  
Musika formatu fisikotan (CDa, biniloa...) entzutea

Liburuak *online* irakurtzea  
Filmak, telesailak edo beste ikus-entzunezko batzuk *online* ikustea  
Ikuskizun bat *online* ikustea  
Musika plataformetan entzutea

### PARTE-HARTZE FISIKO EDO ANALOGIKOA

### PARTE-HARTZE DIGITALA

Antzerkia egitea  
Koru batean kantatzea  
Musika-tresna bat jotzea

Material artistiko propioa edo beste egile, profesional edo amateur batzuen partekatzea  
Produktu kultural eta artista berriak ezagutzea  
Informazioa bilatzea eta prestatzea

### PARTE-HARTZE AKTIBOA

Parte-hartze moten heterogeneotasuna kontuan izanda diseinatzen da ikerketa, eta lau dira guztira. Bakoitzari berritasun gisa hurbiltzea ahalbidetzen du, baita multzo osoari ere.

"*Arts Council England* erakundearen Taking Part inkestaren datuekin berriki erakutsi dutenez, ez parte-hartzaile edo ez publiko gisa definitutako pertsonen kopurua oso txikia da ikuspegi zabalago bat kontuan hartzen denean<sup>5</sup>. Hemen fokua, espezifikoki, parte-hartze modu desberdin horien begiradarekin zabaltzen bada ere (eta ez katalogoa aisiarekin lotuagoak dauden beste praktika batzuekin zabaldua), espero daitekeen emaitza bera da, eta parte-hartzeari buruzko lehenengo hipotesia eragiten du.

5. Taylor MR (2016) "Nonparticipation or different styles of participation? Alternative interpretations from Taking Part" *Cultural Trends*, 25 (3): 169-181.





### 1. HIPOTESIA

Parte-hartzearen arazoa ia desagertu egiten da parte-hartze modu posible guztien analisisian kontuan hartu beharreko aukera-sorta zabaldu bezain laster.

Parte-hartze kulturalaren nozioa gizarte-mailan propio kulturaltzat ulertutako jardueren haratago hedatzean, kultura parte hartzen ez duen publiko segmentuak gai garrantzitsua izateari uzten dio.

Termino soil-soilik estatistikotan, fokua ez dago parte hartzen ez duten pertsonetan jarria, eta parte hartzearen egitatea bera da kasu askotan normaltasuna (arruntena ehunekoei dagokienez)<sup>6</sup>.

## 2.2. Zer aldagaitik nola aldagaira: patroi elitistatik patroi omnivorora

Kultura-ohituren azalpenak bilakaera izan du denboran zehar elitistagoa den eta herrikoia goa eta komertzialagoa den beste batekin kontrajarritako kultura-kontsumoaren analitiko kontsumo-alor gutxi-asko zabalago batera. 90eko urteetan, Richard Peterson eta Albert Simkus<sup>7</sup> ikerlarien ikerketak erakusten duenez, determinatzaile psikologikoez ez dute soilik zerikusia elitismoaren eta "goi-kultura" eta herri-kultura arrunt edo komertzial baten kontraposizioarekin, baizik eta kontsumoaren zabaltasun edo barietatearekin ere bai.

Bestalde, elitismoaren nabarmenitze hori, hurbilketa soziologiko tradizionalaren adierazgarri, Pierre Bourdieu soziologoaren "gizarte-bereizketaren" hipotesi ezagunean errotuta dago, zeinaren arabera goiko gizarte-klaseek (diru-sarrerak handienak, okupazio onenak eta hezkuntza-baliabide onenak dituzten pertsonak) jarduera eskusibo batzuetan, "goi-

kulturakoak", parte hartzen duten, gizarte-bereizketako adierazgarri gisa. Gizarte-harremanen esparruko desparekotasunak parte-hartze kulturalaren arloa eramaten ditu begirada horrek

Parte-hartze kulturalaren patroien bilakaera ez da jada hainbeste bereizten jarduera eskusiboak, "goi-kulturakoak", egiteagatik edo ez egiteagatik, baizik eta egiten diren jardueren barietatearengatik. Horrela, barietate-maila handi bat *omnivorismo* kultural gisa etiketatzen da (jarduera eskusibo zein herrikoietan parte hartzen duten pertsonak) eta barietate-maila txiki bat, aldiz, *univorismo* kultural gisa (gehienbat herrikoiak diren, oso zabalduetako jardueretan parte hartzen duten pertsonak).

### 2. HIPOTESIA

Determinatzaile sozialek zer kontsumitzen den aldagaian zein nola kontsumitzen den aldagaian izango du ondorioa.

Baina David Wright soziologoak tesi *omnivoristaren* bere berreraikuntza historikoan kontatzen digunez<sup>8</sup> bereizketaren begiradaren ukapen osoa baino birformulazio bat da hau. Azken hamarkadetako gizarte-aldaketarekin sintonian dagoen bilakaera bat da, honako hauek bilduta:

- \_\_\_\_\_ Hezkuntzaren eta tolerantziaren balio liberalak beste formula batzuetara zabaltzea.
- \_\_\_\_\_ Kulturaren beraren zabalkundea kulturaren sarbiderako demokratizazioaren bidez.
- \_\_\_\_\_ Kapitalismoaren bilakaerarekin bat datozen bizi-estilo berriak.

Testuinguru horretan, zenbait ikerlanek adierazten dutenez, patroi omnivorista honen hazkunderarekin batera, faktore esplikatzaile tradizionalak (hala nola diru-sarrerak edo hezkuntza) gutxitu egin dute beren gaitasun esplikatzailea, iragarle esanguratsu gisa atxikitzen badira ere<sup>9</sup>.

6. Jarduera kultural harkor guztiak egiteko maiztasun-datuetan interesatuta dauden pertsonentzako, inkestaren lurralde-txostenak kontsulta daitezke hemen:

[https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura\\_ohiturak/eu\\_ohiturak/ohiturak.html](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura_ohiturak/eu_ohiturak/ohiturak.html)

7. Peterson RA & Simkus A (1992) "How musical tastes mark occupational status groups" en Lamont, Michele, Fournier, Marcel (Eds.) Cultivating differences: Symbolic boundaries and the making of inequality. University of Chicago Press, Chicago, 152-186

8. Wright D (2016) "Cultural Consumption and Cultural Omnivorism" en Inglis D & Almila AM (Eds.) The Sage Handbook of Cultural Sociology, Sage Publications, London, 567-577

9. Jæger M & Katz-Gerro T (2008) "The rise of the cultural omnivore 1964-2004". Social Policy and Welfare Services, Working Paper Series 09.



*Omniborismoaren* pean askotariko gizarte-profil ugari aurki daitezkeelako gertatzen da hori, nahitaez identifikatuta ez daudenak talde dominatzaile edo eliteko talde gisa (nahiz eta talde jakinak izan zabalkundeari eta kultura-bariatatearen gehikuntzari onura gehien atera diezaioketenak<sup>10</sup>).

Emaitza gisa, "elitismoaren" edo "herri-kulturaren" ideiak hobeto zehazten dira praktiken gizarte-zabalkundearen arabera (murriztua edo zabala) praktiketako parte-hartzaileen gizarte-ezaugarrien arabera baino (talde sozialki dominatzaileak edo ez).

Hori azaltzeko, gurutzatzen diren bi ardatz pentsa ditzakegu berriz ere:

1. Ardatz bat kultura **elitistago** baten eta beste kultura **herrikoi edo komertzialagoaren** baten arteko bereizketari buruzkoa.
2. Beste bat kultura-gustuaren zabaltasunari edo estutasunari buruzkoa, jarraitu bat marrazten duena **ez parte hartzetik parte-hartze erregularrera** (*omniborismoa*) **aldizkako parte-hartzetik** igarota (*uniborismoa*).



Parte hartze kulturalari buruzko patroialdaketaren hautemate enpirikoak **fokuzer kontsumitzen den aldagaitik nola kontsumitzen den aldagaira mugitzea** inplikatzeko du, garai bateko hierarkiak gaur egungo mendebaldeko gizarteetan ahulduta geratuak izateko posibilitatearen inguruko gogoeta zabalduz. Horrela, eskema egokitu egiten da parte-hartze kulturalaren fenomenoaren azalpen hobea eskaintzeko.

Gainera, kontuan izanda jatorrian *omniborismoa* gustutik edo interesetik abiatuta hurbiltzen dela, eta praktikatik beratik, orain dela are gutxiago ekarri da eztabaidara **irenskortasunaren** ideia: gakoa ez da mota (gizarte-mailan gutxi-asko zabaldua, dela herrikoi, dela elitista, dela *underground*,...) edo gustuaren barrutia (gutxi-asko zabala), baizik eta kantitatea edo intentsitatea.

Argi dago bariatateak eta kantitateak harreman estua dutela egiazko praktikez hitz egiten denean eta ez bakarrik gustu kulturalaz: kantitatea da nahitaez bariatatea egiazko praktikez hitz egiten badugu. Tesi omniboroaren beren berrikuspenean, Oriel Sullivan eta Tally Katz-Gerro<sup>11</sup> soziologoek praktikak zuzenean artatzearen garrantzia ikusten dute, eta, hori horrela, argi eta garbi kuantitatiboagoa den dimentsio bat sartzen dute, intentsitatezkoa.

Gustu edo interes kulturala	Praktika edo parte-hartzea
Gustu kulturalaren zabaltasunak ez du nahitaez ordainik denborari dagokionez: ___ Aurrejoera bat besterik ez da gustua, eta ez dago zertan egin nahitaez	Parte-hartze kulturalaren zabaltasunak ordaina du nahitaez denborari dagokionez: ___ Denbora-dimentsio batean garatzen den portaera da parte-hartzea

Tesi horiek Euskal Herriko inkestaren parte-hartze kulturalaren analisiari aplikatuz, begirada bikoitza konbinatzen da:

1. **Bariatetari**, jarduera guztiak parte hartzeko modu bakoitzean balioestearen emaitza.
2. **Kantitateari edo emaitzari**, gustuen ordezkari praktikak balioestearen emaitzak.

Pertsona bakoitzaren dieta kulturalaren ikuspegi hau parte hartzeko modu bakoitzari eta modu globalari aplikatzen zaio, modu guztien konbinazio gisa eraikia.

10. Warde A, Wright D & Gayo-Cal M (2007) "Understanding Cultural Omnivorousness: Or, the Myth of the Cultural Omnivore" *Cultural Sociology* 1: 143-5  
 11. Sullivan O & Katz-Gerro T (2006) "The Omnivore Thesis Revisited: Voracious Cultural Consumers" *European Sociological Review*, 23(2): 123-137

## 2.3. Ikusmolde esplikatzailearen bilakaera

Mendeko aldagaiaren alderdiaren oharpen horiek (arreta nola aldagaian, dibertsitatean eta intentsitatean jartzea) inplikazioak dituzte, halaber, faktore esplikatzaileen alderdian, ikerketen errepeaso batetik ondorioztatzen denez.

Lehenik, **gai sozioekonomikoei buruzko aldagai tradizionalen pisu esplikatzailearen berrespen errepikatua** nabarmendu daiteke. Gai horien artean elkartze positibo batekin nabarmentzen dira diru-sarreraren maila handiagoa, hezkuntza-maila handiago eta gizarte-estatus handiagoko lanbideak<sup>12</sup>. Esanguratsua da sozializazio edo transmisio kulturalak haurtzaroan duen eragina, zeinaren arabera adin goiztiarretan kulturarekin izandako harremanak bultzatu egiten duen geroko parte-hartzea, ohituren sorreran eta kodeen ikaskuntzan eragiten duenez<sup>13</sup>. Aldagai horien arteko harremanak badaude ere, bakoitzak bere eragina egikaritzen du mekanismo propioekin:

- **Hezkuntzak** arlo sinbolikoko gaitasun gisa irudikatzen ditu trebetasun kognitiboak.
- **Kapital ekonomikoak** arlo materialeko gaitasun gisa posibilitate finantzarioa.
- **Kapital kultural heredatuak** lehentasunaren barneratzea edo kulturarako joera. Azken dimentsio horrek garrantzia hartzen du ez soilik faktore sozialak balioesteko, baita balio indibidualak ere, eta aurrerago sakontzen da ildo horretan.

Bigarrenik, joera omniboroen azterlanek **faktore sozialen pisu gero eta handiagoa** nabarmentzen dute, **tipikoki ekonomikoez haratago**. Parte-hartze patrioaren bilakaerak zenbait faktoreren pisua bultzatzen du –hala nola adina edo testuinguru geografikoa–, parte-hartzearen zabaltasun handiagorako joera-aldaketaren izaera gazte eta urbanoarekin lotuta, eta beste desparekotasun-ardatz tipiko batzuk hartzen ditu barnean, hala nola sexua edo jatorri etnikoa.

Gainera, kantitatearen kontuari buruzko oharpena harreman zuzenean dago **denbora-faktorearekin**, azalpen hobeak emateko duen gaitasunagatik, portaera omniboro eta irenkorra suposizio jakin batzuen pean baino ez baita posible.

Azkenik, nola aldagaiaren eta ez zer aldagaiaren aldeetan bilatzean, **tradizionalki kontuan hartzen ez diren maila psikologikoko faktore esplikatzaileak** sartzen dira jokoan. Faktore horien sintesi esanguratsu batek parte-hartze kulturalak bete ditzakeen premia psikologikoekin duen harremana du kontuan. Horrela, motibazioen dibertsitatea lau premia motaren arabera biltzen da: sozialak, emozionalak, kulturalak eta sinbolikoak<sup>14</sup>; *ondorengo taulan deskribatzen dira*.

1. **taula.** Parte-hartze kulturalerako motibazioen deskribapena islatzen duten premia psikologikoen arabera.

Motibazioa	Deskribapena
<b>Sinbolika</b>	Norberaren balioak eta nortasuna adierazteko premiarekin identifikatzen da parte-hartze kulturala. Kontsumoaren alderdi sinbolikoekin du zerikusia, autoerrealizazioko zein bereizketako motibazioarekin, maila indibidual psikologikoan edota sozialean interpreta daitekeena.
<b>Kulturala</b>	Alderdi funtzionaltzat hartzen da parte-hartze kulturala, ezagutzeko premia gogobetetzeko gai dena. Horrenbestez, ezagutza hobetzeko motibazio bat dago.
<b>Soziala</b>	Beste pertsona batzuekiko elkarguneak eskaini ditzake parte-hartze kulturalak, gizarte-harremanak eraikitze bitarteko gisa. Motibazio edo erakargarri nagusia esperientzia partekatzea da; hori ikuspuntu indibidualetik zein sozialetik ere irakur daiteke, eta taldeko kide gisa identifikatzeko baliagarria izan daiteke.
<b>Emozionala</b>	Estimulu- eta dibertsio-premiarekin lotzen da parte-hartze kulturala. Errutinatik edo gizarte-rol tradizioaletatik irtetearekin dago lotua, oinarrian emozionala den esperientzia baten bila.

12. Hemen kontsulta daiteke: Sullivan O & Katz-Gerro T (2006) "The Omnivore Thesis Revisited: Voracious Cultural Consumers" *European Sociological Review*, 23(2): 123–137

13. Ikus: Colbert F & Courchesne A (2012) "Critical issues in the marketing of cultural goods: The decisive influence of cultural transmission" *City, Culture and Society*, 3(4): 275–280

14. Botti S (2000) "What Role for Marketing in the Arts? An Analysis of Arts Consumption and Artistic Value," *International Journal of Arts Management*, 2 (3): 14–27

Hurbilketa horri esker, parte-hartze kultureko moduekiko modu independentean ikus daiteke faktore psikologikoen rola, eta modu horiekiko osagarri gisa. Pertsonak jarduera kultural horiek egitera bultzatzen dituzten askotariko prima horien errekonozimenduak eta ez-hierarkizazioak potentzial handiagoko hurbilketa bat ahalbidetzen dute.

Beste ildo batean, baina betiere dimentsio psikologiko honen barruan, **beste aukera batzuen gaintik kulturarako joera, interesa edo lehentasuna** dago aztergai. Neurrien debateak eta diseinuak oztopo materialak soilik ardatz hartzeko joera zuten (edo dute), hala nola gai ekonomiko, geografiko edo demografikoak, dimentsio psikologikoa alde batera utzita, zeinaren arabera bertaratzen ez diren publikoen zati handi bat ez da bertaratzen azpian dagoen ideia "kultura beraiek bezalako jendearentzat ez dela" delako, "mundu horretakoak" ez direlako sentsazioagatik eta lekuz kanpo sentitzearen deserosotasunagatik. Arts Council England erakundearen 2008. urteko "Taking Part" inkestaren datuekin egindako azken gogoeten artean arrazoi psikologikoengatik autobazterketa eta faktore horren zentralitatea balioesteko premia azpimarratzen da. Publikoak sustatzeko politikak beharrezkoak eta legítimoak dira edozein kasutan ere, eta haiei garrantzi-maila bat gehitzeko posibilitateari bide ematen dio gogoeta horrek.

Puntu horretan hartzen du garrantzia, izan ere, haurtzaroko sozializazioak, aurrejoera indibidual espezifikoko eragiten baititu. Errentaren eta interesaren arteko harremanean, La Caixaren Gizarte Behatokitik zenbait autorek adierazten dutenez,<sup>15</sup> hasierako iragazkiaren lanak egin ditzake interesak, eta interesa dagoen kasuetan soilik ikusten da argiago faktore ekonomikoen pisua. Bi faktoreak kontuan hartzeko premia indartzen du oharpen horrek, egoeren dibertsitateari erantzunez.

Laburbilduta, ikerketa berriek baldintzatzaile estruktural eta materialen (ekonomikoak eta sozialak) dimentsio esplikatzaile tradizionala osatzen dute, adierazle berriagoekin eta literaturan gutxiago ezarritako adierazleekin, dimentsio psikologiko eta indibidual bateko zati direnak<sup>16</sup>.



Ikerketa honetan, diseinuak bi dimentsioetan inkorporatu eta probatu nahi ditu adierazleak, maila indibidualarenak berezkoagoak diren faktoreen pisua aztertzeko lagunduz, maila indibidualak gehiago erantzuten dielarik aurrejoerei posizio sozialari baino.

### 3. HIPOTESIA

Osagai ekonomikoarekin batera, bereizkuntza sozialeko ardatzak izango dira, hala nola adina, sexua, jatorri etnikoa edo testuinguru geografikoa, pisu esplikatzailea izango dutenak. Determinatzaile psikologikoen ere pisu esplikatzaile garrantzitsua izango dute, desberdintasun bat markatuz.

- \_\_\_ Emakumeek, gazteek, EHN jaiotakoek eta hiri-inguruneek parte-hartze maila handiagoak izango dituzte.
- \_\_\_ Zenbat eta kapital-maila eta hezkuntza-maila handiagoa, orduan eta parte-hartze handiagoa.
- \_\_\_ Zenbat eta erraztasun sozioekonomiko handiagoak, orduan eta parte-hartze handiagoa.
- \_\_\_ Zenbat eta aurrejoera psikologiko handiagoak, orduan eta parte-hartze

15. Prieto J, Pérez MJ & Suárez S (2018) "El consumo cultural: ¿cuestión de gusto o de precio?" (Kultura-kontsumoa: gustu-kontua edo prezio-kontua) La Caixaren Behatoki Soziala:

[https://observatoriosociallacaixa.org/-/el-consumo-cultural\\_cuestion-de-gusto-o-de-precio](https://observatoriosociallacaixa.org/-/el-consumo-cultural_cuestion-de-gusto-o-de-precio)

16. Bi dimentsio handian egindako sailkapenak ideiarekin laburpena errazten du, azpisailkapenak puntu horretatik aurrera askotarikoak izan badaitezke ere, egiteko baliatzen diren irizpideen edo asmoaren arabera. Edonola ere, kasu guztietan balioetsi beharreko adierazleak teorikoki eta enpirikoki oinarritutakoak dira.



Oinarrizko hipotesi hauekin batera, gogorarazi behar da, oro har, parte-hartze harkorreko moduaren jardueretarako emanak direla azalpen horiek. Horregatik, parte hartzeko gainerako moduetarako ere berdin funtzionatzen ote duten probatzea interesatzen zaigu, nahitaez ez duela horrela zertan izan aurreikusita, parte hartzeko modu bakoitzak bere esentzia eta izaera propioa duela kontuan izanda<sup>17</sup>.

#### 4. HIPOTESIA

Praktika artistiko amateurrerako eta parte-hartze digitalerako, gaitasun esplikatzaila txikiagoa izango da.

## 2.4. Parte-hartze kulturalaren inpaktuak

Kulturari bere inpaktuetatik egiten zaion begirada ez da berria<sup>18</sup>, nahiz eta gutxi sistematizatuta eta aplikatuta dagoen kultura-ohiturei edota kultura-politiken ebaluazioari.

Ohiko ikerketen artean, inpaktuak eta alboko efektuak sortzeko kulturak duen gaitasunari buruzko ikusmolde instrumentala nabarmentzen da, esparru ekonomikoan edo sozialean gerta daitezkeenak bezala, esaterako.

Hurbilketa ekonomikoek pisu handia izan dute, kulturarako ekarpen publikoa kulturaren beraren inpaktuetatik abiatuta justifikatzeko azken helburuarekin. Inpaktu sozialak aztergai garrantzitsu gisa erreibindikatu izan dira ondoren, kultura bere horretan balioestearekin batera, eta ez bere alboko efektuen arabera.

Bereziki 2008. urtetik aurrera, zenbait ekonomistak zoriontasunaren ekonomiari buruzko "Happiness: A revolution in Economics"<sup>19</sup> izenburuko liburua argitaratu ondoren, hazi egin da biztanleriaren ongizatearekin

lotutako faktore ez-materialak daudela erakusteko interesa. Ikerketa-ildo horren barruan, ikusmolde subjektibotik abiatuta egiten da zoriontasunaren azterketa, ikusmolde baliagarriena dela erakutsi baitigu: inkestatuari zuzenean galdetzea bere ongizateari buruz. Azterlan horiek erakusten digutenez, ez dago harreman argi eta esturik diru-sarreraren eta zoriontasunaren artean<sup>20</sup>.

Estrategia honi jarraikiz, zoriontasunaren eta Estatu espainoleko kultura- eta aisialdi-arloko parte-hartzearen arteko harremana berriki garatu du Nela Filimon ikerlariak, jarduera guztien arteko aldeak konparatuz<sup>21</sup>. Interesgarria da kultura-jarduera askoren osagai sozial/erlazionalari buruz egiten duen hurbilketa, zoriontasun-maila handiagoarekin lotzen dela ikusiz.

Ikerketa-ildo horrekin sintonian, garrantzitsua da kultura-jarduerak oro har egiteak eragiten duen gogobetetzearen inguruan galdetzea, praktiken arteko bereizketarik gabe (antzerkera joateak, filmak ikustea, kontzertuetara joatea...). Parte hartzeko modu guztiei buruz arestian azalduakoa kontuan hartuz, gainera, garrantzitsua da guztiak kontuan hartzea eta ez harkorra soilik. Horrek zera dakar, parte hartzeko modu guztien eskema ez zaio soilik arrazioen azterketari aplikatu behar, baita haien inpaktuei ere.

Nela Filimon-en hurbilketak iradokitzen du jarduera zabalduenak gutxiago lotuta daudela zoriontasun handiagoekin, eta alderantziz. Horrenbestez, espero litekeena da modu bakoitza modu desberdinean lotzen dela bizitzarekiko gogobetetzearekin, kontuan izanda bakoitzak izaera eta zabalkunde sozial desberdina duela. Praktika digitalak zabalagoak eta inpaktuetan garrantzi gutxiagokoak izango dira, eta praktika artistiko amateurrak zabaltasun gutxiagokoak baina inpaktu handiagoekin.

#### 5. HIPOTESIA

Parte-hartze kulturalerako moduen mende daude bizitzarekiko gogobetetzean izaten diren inpaktuak. Zabaltasun gutxiagoko parte hartzeko moduetan inpaktu gutxiago izango dira.

17. Kulturaren Euskal Behatokiaren Kultura Ohiturei buruzko Panelak horri buruzko argibideak ematen dizkigu, faktoreak parte hartzeko modu bakoitzaren mailaren bilakaeran desberdin jokatzen dutela erakutsiz: [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/informacion/keb\\_kultur\\_ohitura\\_panel2019\\_6/eu\\_def/index.shtml](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/informacion/keb_kultur_ohitura_panel2019_6/eu_def/index.shtml)

18. Kulturaren balioan eta inpaktuetan sakontzeko "Kultuaren balio publikoari" buruzko Kulturaren Euskal Behatokiaren beraren txostena (2018) kontsulta daiteke: [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_balio\\_publicoa\\_2018/eu\\_def/adjuntos/Kulturaren\\_balio\\_publicoa.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_balio_publicoa_2018/eu_def/adjuntos/Kulturaren_balio_publicoa.pdf)

19. Frey BS et al. (2008) "Happiness: A Revolution in Economics" MIT press

20. Rojas M (2009) "Economía de la felicidad. Hallazgos relevantes respecto al ingreso y el bienestar" El Trimestre económico, 303(3): 537-573.

21. Filimon N (2018) "El impacto de la cultura y el ocio en la felicidad de los españoles" (Kulturaren eta aisialdiaren inpaktua espainiarren zoriontasunean) La Caixaren Gizarte Behatokia: <https://observatoriosocialcaixa.org/es/-/el-impacto-de-la-cultura-y-el-ocio-en-la-felicidad-de-los-espanoles>



Bizitzarekiko gogobetetzearen berez maila indibidualagoko onura posible hauez haratago, badira inkesta bidez neur daitezkeen izaera sozialeko beste alderdi batzuk, hala nola gizabanako tolerantante eta kohesionatuagoak sortzeko parte-hartze kulturalak duen gaitasuna, komunitate-bizitza errazten duten elementuak.

Ildo horretan, ohikoa da kultura-planek eta politika publikoek helburu horien erreferentzia egitea, dimentsio hori gutxitan ebaluatzen bada ere.

Ikerketa honek ez ditu soilik bizitzarekiko gogobetetzea bezalako onura indibidualak aztertzen bere horretan, eta azertu egiten ditu, halaber, tolerantzia sozial eta lotura sozialen sorkuntza bezalako onura sozialak.

## 6. HIPOTESIA


Tolerantzia-maila eta gizarte-kohesioko maila handiagoak eragiten ditu parte-hartze kulturalak.

# 3. EMAITZEN AZALPENA: PARTE-HARTZE MAILAK, ARRAZOIAK ETA INPAKTUAK

Azterketa sinple baterako, bi begiradatan antolatzen dira ikerketa eta emaitzak:

1. Lehenik, parte-hartze kulturalaren **faktore esplikatzaileak**.
2. Bigarrena, parte-hartze kulturalaren **inpaktuak**.

## 1. BEGIRADA



## 2. BEGIRADA

→ **1. eranskinean** biltzen da interesdunentzat beharrezkoa den informazio metodologiko guztia:

- \_\_\_ 2018ko Euskal Herriko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren fitxa teknikoa.
- \_\_\_ Aztertutako aldagaiak (garrantzitsua modu bakoitzean kontuan hartzen diren jarduera kulturalak eta aldagai esplikatzaileen kategoriak ezagutzeko).
- \_\_\_ Aplikatutako ikerketa-teknikak.

Emaitzen irakurketa lasai bat egiteko, gomendagarria da erabilitako aldagaien multzoa ezagutzea eta nola eratu diren jakitea. Emaitzen irakurketa eta interpretazio egokia ahalbidetu du horrek.





## 3.1. 1. begirada: Faktore esplikatzaileak

### 3.1.1 Parte-hartze kulturalako maila orokorrak

Parte hartzeko modu bakoitzak izaera propioa du, zabaltasun-maila desberdinekin herritarren artean eta askotariko banaketak jarduera kopuruari dagokionez. Gogorazi behar da **parte-hartzea barietate- eta intentsitate-nahasketa bat bezala ikusten dela** kasu guztietan, egiten diren egiazko askotariko praktiken kopurua hartzen baita oinarri gisa (alde batera utzita haien arteko praktika jakin bat gehiago edo gutxiago egiten den).

Ondorengo taulan daude gutxienez kasu bakoitzean jarduera bat egiten duten pertsonen ehunekoak. Begirada orokor batetik, parte-hartze harkorra kultura-praktika aktiboa baino zabalduegoa dagoela ikus daiteke. Kontuan izan behar da Interneterako sarbide erregularrak alde nabarmena markatzen duela parte-hartze digitalean (hau da, kontua ez da Interneterako sarbidea duten edo ez, baizik eta normalean ematen dioten erabilera). Erregularri Internetera sartzen diren pertsonen artean parte-hartzea harkor digitala % 100era iristen da ia eta aktiboa, aldiz, % 55era.

1. grafikoa Modu bakoitzerako parte-hartze kulturalako mailen laburpena (gutxienez jarduera bat egiten duten pertsonak) (%).



Parte-hartze harkorra: azken 3 hilabeteak  
 Praktika artistikoak: azken 12 hilabeteak  
 Asoziazionismoa: gaur egungo unea  
 Parte-hartze digitala: praktika erregularra  
 \*Oinarria: Internetera erregularri sartzen den biztanleria

Oro har, jarduera guztiak kontuan izanez gero, biztanleriaren % 0,1a soilik dago parte-hartze kulturaletik erabat baztertuta. Horrek esan nahi du, praktiken barrutia zabalduz gero, biztanleria osoak parte hartzen duela jarduera kulturalen edo egiten duela gutxienez jarduera kultural bat.

2. grafikoa Parte-hartze kulturalako maila globala (%)




Puntu honetan, eta aurrerantzean irakurketa errazteko, azpimarratu behar da parte-hartze globala ez dela modu desberdinen batezbestekoa, baizik eta batura. Parte hartzeko modu guztiak konbinatzearen emaitza den aldagaia dugu, modu guztiei ere pisu bera emanez.

**Jarduera harkorretan** beheranzko joerarekin banatzen da parte-hartzea, jardueren dibertsitatea/kantitatea hazten den arabera. Hori gorabehera, jarduerarik ez egitea ez da ohikoa, eta, aitzitik, ohikoena guztira 9 jarduera posibletatik 3 egitea da, alde txikiarekin bada ere. Horrela, biztanleriaren % 14,2k adierazten du ez duela inolako jarduera harkorrik egin azken 3 hilabeteetan, eta % 16,2k 3 egin dituela dio.






3. grafikoa Parte-hartze kultural harkorreko mailak (%)



Jarduerarik egiten ez dutenak kontuan hartuta, laginaren % 73k 1-5 jarduera egin ditu azken hiru hilabeteetan. % 13 baino ez dago omniboroenen eta irenkorren artean, 6 jarduerarekin edo gehiagorekin. Batezbesteko globala 2'98 jarduera da.


Praktika aktiboari dagokionez, askoz ere noizbehinkakoagoa da: **jarduera artistikorik** ez egitea zaletu gisa da aukerarik ohikoena alde handiarekin (% 66,6). Badira jarduera bat baino gehiago aldi berean egiten dituzten pertsonak, bizkor murrizten badira ere, nahiz eta posible izan pertsona oso aktiboak aurkitzea. 0'56an geratzen da batezbestekoa, 1ekotik oso azpitik, baina kasu berezi askorekin parte-hartze oso askotarikoarekin.

4. grafikoa Praktika artistiko amateurrak egiteko mailak (%)



*Praktika digital harkorre* (entzutea, ikustea, deskargatzea, irakurtzea, erostea...) dagokienez, molde atipiko bati jarraitzen dio banaketak, erregulariki Internetera sartzen ez diren pertsonen kopuru handiarekin, eta, jarraian, jarduera digital harkor guztien burutzapenaren banaketa normal bat, kanpaia formarekin. Horrela, batezbestekoa jarduera desberdinen 5,45eko burutzapenean dago.

5. grafikoa Parte-hartze kultural harkorreko mailak modu digitalean (%)



Aurrekoan ez bezala, **praktika digital aktiboen** burutzapenak (material kultural edo artistikoa argitaratzea edo partekatzea, beste artista batzuekin harremanetan jartzea...) egindako jardueren barietatea gehitzen den arabera progresiboki gutxitzen den banaketa du berriz ere, praktika amateurrekin gertatzen zen bezala. Kasu honetan batezbestekoa 1ekotik zertxobait azpitik dago 0,98rekin, ia % 70a jarduera horien arteko bakar bat ere egiten ez badu ere.



6. grafikoa Parte-hartze kultural harkorreko mailak modu digitalean (%)




### 3.1.2 Faktore esplikatzaileak parte hartzeko moduen arabera

Atal honetan parte hartzeko moduetan fokua jarriz aurkezten dira datuak, honako galdera honi erantzunez: zer aldagaik hartzen dute positiboki eraginpean modu bakoitzeko parte-hartzeak? zeinek modu negatiboan?

Atal honetan emaitzak azaltzen dira<sup>22</sup>, haien interpretazioa eta haiei buruzko gogoeta hurrengorako utzita.

Beste ezer baino lehen, interesgarria da azpimarratzea, eredu bakoitzaren gaitasun esplikatzaileari buruzko hipotesiari dagokionez, **modeloak benetan hobeto funtzionatzen duela parte-hartze harkorrean praktika aktiboetan baino**. Lehenengoak % 28ko gaitasun esplikatzailea lortzen du. Bigarrenetan, praktika amateurren azalpenetan, % 13.

7. grafikoa Eredu bakoitzean azal dutako bariantza-ehunekoa (gaitasun esplikatzailea, R2 estatistikoa)



Partaidetza digitalari dagokionez, bereziki harkorrari, Internet eta adina izugarri lagungarriak dira gaitasunari dagokionez portaera azaltzeko, horrek dakarren oztopoa dela-eta (gaitasun esplikatzailearen % 63). Berriz ere, ehunekoa handiagoa da praktika aktibo digitalen kasuan baino (% 22). Parte-hartze digitala parte hartze globalaren zati denez, globala % 48raino azaltzeko gaitasuna gehitzen da.

Praktika artistikoen kasuan izan ezik, % 20aren gaineko gaitasun esplikatzaile hori emaitza ona da gizarte-zientzien testuinguruan. Edozein kasutan ere, koefizienteak erakusten dituzte ondorengo emaitzek eta aldagai esplikatzaileak detektatzeko baliagarriak dira, ereduaren gaitasunaz haratago doan funtsezko begirada.

Ondoren, emaitzak eskematikoki adierazten ditugu parte hartzeko modu bakoitzari jarraikiz. Bakoitzarentzako taula aurkezten dugu zeinu positiboko eta zeinu negatiboko aldagaiak nabarmenduz. Kasu bakoitzean, aldagai bakoitzaren emaitza interpretatzeko baliatzen den erreferentziako kategoria adierazten da, hala badagokio. Gainera, hierarkikoki ordenatzen dira, garrantzitsuenak nabarmentzeko. Estatistikoki esanguratsuak ez direnak edota koefizientea oso txikiak daukatenak zuzenean baztertzen dira. Horregatik, aztertutako aldagaien gurtzkoa erakutsi behar da, erreferentzia gisa:

22. **2. eranskinetan** taula kontsultatu daiteke eredu guztietako B koefiziente estandarizatu guztiekin (parte hartzeko modu bakoitzerako, globala barne). Eranskinaren taulan balioetsitako aldagai esplikatzaile guztien koefiziente guzti-guztiak agertzen dira. Beren kabuz emaitzetan sakondu nahi duten pertsonentzat berebiziko garrantzia izango du taulak. Era berean, **3. eranskinetan** parte hartzeko modu bakoitzerako aldagai bakoitzaren efektuaren bisualizazio bateratua dago eta **4. eranskinetan** dimentsio esplikatzaile bakoitzaren bisualizazio espezifiko bat (komentarioekin batera).



<p><b>1. dimentsioa</b> <b>Haurren sozializazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Aitaren ikasketak (5 maila)</li> <li>— Amaren ikasketak (5 maila)</li> <li>— <b>Jarduera kultural harkorrak egitea haurtzaroan</b> (Gutxitik gehiagorako eskala)</li> <li>— <b>Jarduera kultural aktiboak egitea haurtzaroan</b> (Gutxitik gehiagorako eskala)</li> </ul>
<p><b>2. dimentsioa</b> <b>Ezaugarri soziodemografikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Adina (Kopurua)</li> <li>— Sexua (Gizona/Emakumea)</li> <li>— <b>Jatorri geografikoa</b> (Mailak, Euskal Herrian (EH) jaiotakotik hasi eta Europar Batasunetik kanpo jaiotakoarekin buka)</li> <li>— <b>Udal-dimentsioa</b> (5 maila)</li> <li>— <b>Administrazio-lurraldea</b> (3 kategorია: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde)</li> <li>— <b>Elebitasuna euskara</b> (Bai/Ez)</li> </ul>
<p><b>3. dimentsioa</b> <b>Egoera pertsonala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— <b>Ardurapeko seme-alabak</b> (Bai/Ez)</li> <li>— <b>Ardurapeko beste mendeko pertsona batzuk</b> (Bai/Ez)</li> <li>— <b>Astialdia aste barruan</b> (Eskala)</li> <li>— <b>Astialdia asteburuan</b> (Eskala)</li> </ul>
<p><b>4. dimentsioa</b> <b>Kondizio sozioekonomikoa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— <b>Ikasketa-maila</b> (5 maila)</li> <li>— <b>Mendekotasun ekonomikoa</b> (Bai/Ez)</li> <li>— <b>Lan-egoera</b> (7 kategoría: lanean, langabezian, etxeko lana, ikaslea, erretiroduna, beste batzuk)</li> <li>— <b>Diru-sarrerak</b> (Tarteen eskala, neurketa objektiboa)</li> <li>— <b>Zailtasun ekonomikoa hilabete-bukaerara iristeko</b> (Eskala, pertzepzio subjektiboa)</li> </ul>
<p><b>5. dimentsioa</b> <b>Kulturarako aurrejoerak (psikologikoa eta materialak)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— <b>Kulturaren garrantzia pertsonarentzat</b> (Eskala)</li> <li>— <b>Motibazio kulturala</b> (3 kategoría: autoerrealizatzeko, sozializatzeko, errutinatik ateratzeko)</li> <li>— <b>Informazio kultureko maila</b> (Mailak, informazioa aurrejoera markatzen duen "baliabide" gisa).</li> <li>— <b>Interneten erabilera erregularra</b> (Bai/Ez, Internet ezaguna egiten zaion "baliabide" gisa).</li> </ul>

## Parte-hartze harkorra (fisikoa edo analogikoa)

**2. taula.** Parte-hartze harkorrean efektu positiboak eta negatiboak dituzten aldagaiak, beren garrantziaren arabera ordenatuak (estandarizatutako erregresioko B koefizientetan neurtua)

Zeinu positiboko aldagai nabarmenak	Zeinu negatiboko aldagai nabarmenak
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Nahiko edo oso informatua egotea</b> (Erref.: Batere informatua ez egotea)</li> <li>2. <b>Unibertsitate-ikasketak izatea, LH/graduak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa</b> (Erref.: Lehen mailako ikasketak)</li> <li>3. <b>Balio pertsonala ematea kulturari</b></li> <li>4. <b>Ikaslea izatea</b></li> <li>5. <b>Haurtzaroan jarduera harkorrak edo aktiboak egin izana</b></li> <li>6. <b>Diru-sarreraren maila handiago bat izatea</b></li> <li>7. <b>Elebiduna izatea</b></li> <li>8. <b>Iparraldean bizitzea</b> (Erref.: EAEn bizitzea)</li> <li>9. <b>Emakumea izatea</b></li> <li>10. <b>Astialdia izatea aste barruan</b></li> <li>11. <b>Kulturaren parte hartzea autoerrealizatzeko</b> (Erref.: parte hartzea sozializatzeko)</li> <li>12. <b>Internet modu erregularrean erabiltzea</b></li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>Erretiroduna, pentsioduna edo ezindua eta etxeko lana egitea</b> (Erref.: Ordaindutako lana)</li> <li>2. <b>Prestazio sozialak jasotzea</b></li> <li>3. <b>Munduaren gainerako herrialdeetan jaiotakoa</b> (Erref.: EHn jaiotakoa)</li> <li>4. <b>Nagusia izatea</b> (adinez)</li> <li>5. <b>Hilabete bukaerara iristeko zailtasunak izatea</b></li> <li>6. <b>25.000 baino gehiagoko udalerrietan bizitzea, baina ez hiriburuetan</b> (Erref.: 10.000 biztanletik beherako udalerrietan lan egitea)</li> </ol>

Parte-hartze harkorrean rol oso garrantzitsua dute baldintza sozioekonomikoen zein kulturarako aurrejoerekin lotutakoek. Horrela, bereziki nabarmentzen dira ikasketa-maila eta gai ekonomikoak, eta ikasketa handiagoak eta diru-sarrera handiagoak eta hilabete-amaierara iristeko zailtasun gutxiago dituzten pertsonen gehiago parte hartzen dutela identifikatuta.

Kapital kulturalari lotutako faktoreek ere eragin positiboa dute, eta faktore horien artean daude informazio-maila eta kulturari ematen zaion balio pertsonala, haurren sozializazioa (jarduera harkorretako sozializazioa nabarmentzen da bereziki) eta autoerrealizatzeko motibazioa, zeinak gizarte-harremanak bilatzeak baino garrantzi handiagoa duen. Interneten erabilera erregularra aldeko faktore gisa ageri da.



Alor soziodemografikoan adina eta emakume izatea ere nabarmentzen dira. Elebitasunak parte-hartze zabalagoa bultzatzen du, eta hiriburuetan zein Iparraldean bizitzea aldeko testuinguru gisa ageri dira.

### Parte-hartze aktiboa (praktika artistiko amateurak)

**3. taula.** Praktika amateurak egitean efektu positibo eta negatiboak dituzten aldagaiak, beren garrantziaren arabera ordenatuta (estandarizatutako erregresioko B koefizientetan neurtua).

Zeinu positiboko aldagai nabarmenak	Zeinu negatiboko aldagai nabarmenak
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Haurtzaroan jarduera aktiboak (bereziki) edo harkorrak egin izana</li> <li>2. Balio pertsonala ematea kulturari</li> <li>3. 10.000 biztanletik gorako hirietan bizitzea, batez ere 10.000–25.000 biztanle dituztenetan</li> <li>4. Iparraldean bizitzea (Erref.: EAEn bizitzea)</li> <li>5. Internet modu erregularrean erabiltzea</li> <li>6. Emakumea izatea</li> <li>7. Ikaslea izatea</li> <li>8. Lehen hezkuntzatik gorako ikasketa-maila duen ama bat izatea</li> <li>9. Zailtasun ekonomikoak izatea</li> <li>10. Unibertsitate-ikasketak izatea (Erref.: Lehen mailako ikasketak)</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kulturaren parte-hartzea errutinatik ateratzeko (Erref.: sozializatzeko parte hartzea)</li> <li>2. Ardurapeko seme-alabak izatea</li> <li>3. Munduaren gainerako herrialdeetan jaioetakoa (Erref.: EHn jaioetakoa)</li> <li>4. Nagusia izatea (adinez)</li> <li>5. Astialdia izatea aste barruan</li> </ol>

Gai finantzario eta sozioekonomikoek pisua galtzen dute parte hartzeko modu honetan. Izan ere, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak gehiago parte hartzen dute praktika artistiko amateurretan. Ikasketa-mailari dagokionez, unibertsitate-gradua da soilik esanguratsua.

Kapital kulturalarekin lotutako gaiek, aitzitik, beren garrantzia atxikitzen dute. Bereziki haurtzaroko jarduera aktibo/artistikoetako sozializazioa nabarmentzen da: txikitan egiteko aukera izan dutenak dira gehien praktikatzten dutenak. Era berean, pisua hartzen du ikasketa-maila handiagoa duen ama bat izateak. Motibazio psikologikoari dagokionez, horrelako praktikan sozializatzeko eta autoerrealizatzeko premia nabarmentzen du, premia amateurak soilik baitu harreman negatibo bat praktika artistiko amateurekin. Era berean, kulturari

ematen zaion balio pertsonala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta praktika amateur gehiago egiten dira.

Alor soziodemografikoan, emakume izatearen eta Iparraldean bizitzearen garrantzia atxikitzen da, eta munduaren gainerako herrialdeetan jaio izanaren penalizazioa. Kanpotik datozenak gutxiago hurbiltzen dira horrelako sorkuntza-praktiketara. Internetarako sarbidea ere aldeko elementua da kasu honetan.

Edozein kasutan, parte hartzeko modu honetan neurri txikiagoan eragiten dute kontuan hartutako arrazoi soziologikoek.

### Parte-hartze digital harkorra

**4. taula.** Parte-hartze digital harkorrean efektu positiboak eta negatiboak dituzten aldagaiak, beren garrantziaren arabera ordenatuta (estandarizatutako erregresioko B koefizientetan neurtua)

Zeinu positiboko aldagai nabarmenak	Zeinu negatiboko aldagai nabarmenak
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Internet modu erregularrean erabiltzea</li> <li>2. Unibertsitate-ikasketak izatea, LH/graduak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa (Erref.: Lehen mailako ikasketak)</li> <li>3. Informazio kultural handiagoa izatea</li> <li>4. Hiri handiagoetan bizitzea (Erref.: 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizitzea).</li> <li>5. Haurtzaroan jarduera harkorrak edo aktiboak egin izana</li> <li>6. Kulturaren parte hartzea autoerrealizatzeko (Erref.: parte hartzea sozializatzeko)</li> <li>7. Nafarroan bizitzea (Erref.: EAEn bizitzea)</li> <li>8. EHTik kanpo jaio izana</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nagusia izatea (adinez)</li> <li>2. Iparraldean bizitzea (Erref.: EAEn bizitzea)</li> <li>3. Langabezian egotea (Erref.: Ordaindutako lana)</li> <li>4. Emakumea izatea</li> <li>5. Seme-alabak edo beste mendeko pertsona batzuk ardurapean izatea</li> </ol>

Interneten erabilera, batez ere, eta adina, neurri txikiagoan (erlazio bat adierazi dezake horrek, pisua adinarena baino Interneten erabilerarena bada ere) dira bi faktore nagusiak. Ikasketek berriz ere rol garrantzitsua dute, baita haurtzaroko sozializazioa ere (aurreko moduetan baino garrantzi txikiago badute ere).



Autoerrealizatzeko motibazioa nabarmentzen da sozializatzeko motibazioaren gaineratik, nahiz eta kulturari ematen zaion balio pertsonalak garrantzi txikiagoa duen beste moduekin alderatuta, esanguratsua izaten jarraitzen badu ere. Informazio kulturaleko maila ere esplikatzaile gisa atxikitzen da.

Arlo soziodemografikoan, nabarmentzekoa da EHTik kanpo jaio izana egokiago erlazionatzen dela parte hartzeko modu digitalarekin, eta kasu honetan emakumea izatea faktore negatiboa da gizona izatearekin alderatuta.

Iparraldean bizi izatea kontrako ingurune gisa ageri da EAEn bizi izatearekin alderatuta, Nafarroan bizi izatea aldekoa izanik.

### Praktika digital aktiboak

5. taula. Praktika digital aktiboak egitean efektu positibo eta negatiboak dituzten aldagaiak, beren garrantziaren arabera ordenatuta (estandarizatutako erregresioko B koefizientetan neurtua).

Zeinu positiboko aldagai nabarmenak	Zeinu negatiboko aldagai nabarmenak
<ol style="list-style-type: none"> <li>Internet modu erregularrean erabiltzea</li> <li>Informazio kultural handiagoa izatea</li> <li>Hautzaroan jarduera aktibok egin izana</li> <li>EHTik kanpo jaio izana</li> <li>Balio pertsonala ematea kulturari</li> <li>Hiri handiagoetan bizi izatea (Erref.: 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi izatea).</li> <li>Zailtasun ekonomikoak izatea</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Nagusia izatea (adinez)</li> <li>Kulturari parte-hartzea autoerrealizatzeko edo errutinatik ateratzeko (Erref.: sozializatzeko parte hartzea)</li> <li>Ardurapeko seme-alabak izatea</li> <li>Iparraldean bizi izatea (Erref.: EAEn bizi izatea)</li> <li>Emakumea izatea</li> <li>Diru-sarrera handiagoak izatea</li> </ol>

Internet faktore esanguratsu bat da, baina aurreko kasuan baino askoz ere gutxiago. Adina da garrantzitsua.

Informazio-maila garrantzitsua da berriz ere. Berriz, jarduera aktiboetako sozializazioa esanguratsua da, jarduera harkorretako sozializazioa baino gehiago. Hautzaroan aktiboki praktikatzen duenak posibilitate gehiago ditu nagusia denean egiteko, zuzenean edo alor digitalean.

Ikasketa-mailaren efektua desagertzen da (izan ere, zertxobait gehiago parte hartzen dute lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak derrigorrezko bigarren hezkuntza dutenek baino, alde esanguratsurik gabe gainerako kasuetan), eta arlo ekonomikoan, posizio okerragoetan daudenen aldeko parte-hartzea nabarmentzen da.

Emakumea izatea eta Iparraldean bizi izatea berriz ere kontrakoak dira parte-hartze digital aktiboarekiko.

## 3.2. 2. begirada: Parte-hartzearen inpaktuak

### 3.2.1 Gogobetetze-maila orokorrak, gizarte-tolerantzia eta loturak sortzea

#### Bizitzarekiko gogobetetzea

1etik 10erako eskala batean, non 1 Batere gustura ez eta 10 Erabat gustura den, 7,61ean dago batezbestekoa. Bizitzarekiko gogobetetzeari buruzko beste ikerketa batzuekin uztartzen den emaitza dugu<sup>23</sup>.

18. grafikoa Bizitzarekiko gogobetetzeari batezbesteko maila 1etik (batere gustura ez) 10era (oso gustura)




23. Filimon N (2018) "El impacto de la cultura y el ocio en la felicidad de los españoles" (Kulturaren eta aisialdiaren inpaktua espainiarren zoriontasunean) La Caixaen Gizarte Behatokia: <https://observatoriosociallacaixa.org/es/-/el-impacto-de-la-cultura-y-el-ocio-en-la-felicidad-de-los-espanoles>



Banaketa, horrenbestez, erabat lerratuta dago balio positiboetarantz, eta biztanleriaren % 58,9k 8tik 10era bitarteko balorazioa ematen dio, alegia. Laginaren % 41,1 batez bestekoaren azpitik dago, batez ere 5etik 7ra bitartean.


19. grafikoa Gogobetetze-mailen banaketa 1etik 10erako eskala batean (%)



## Gizarte-tolerantzia

Dibertsiteak eragiten dituen sentimenduak normalean oso positiboak dira: hamar pertsonatik bederatzik baino gehiagok horrelako sentimendu motaren bat adierazten dute. % 6,5ek soilik adierazten dituzte sentimendu negatiboak.

20. grafikoa Gizarte-dibertsitearekiko sentimendu motaren banaketa (%)




Azpiratu behar da galderaren jatorrizko formulazioa gure bizimodu propioaz bestelako bizimodu batekin bizi den pertsona bat ikusteak eragiten dituen sentimenduei (poza, indiferentzia, errezeloa, jakin-mina...) buruzkoa dela, eta ondoren negatibotan edo positibo/neutrotan sailkatzen dira sentimendu horiek.

Horrenbestez, kontuan izan behar dugu, birformulazioa bera zein izatez autopertzepzio bat dela balioetsita, gehienbat muturrekoak diren intolerantzia kasuak ageriko egiten dituela eta nabaritu ezin diren xehetasun asko uzten dituela.

## Loturak sortzea

Oro har, jarduera kulturaletan parte hartzeak guztiz berriak diren gizarte-loturak sortzea dakar. Oro har, hamar pertsonatik seik diote harreman pertsonalak ezarri dituztela jarduera kulturalak eginez, hamarretatik bik maiztasun handiarekin eta hamarretik lauk aldizka.

21. grafikoa Jarduera kulturalari esker pertsonak harreman pertsonalak zein maiztasunarekin ezartzen dituzten (%)






### 3.2.2 Parte-hartze kulturalaren inpaktuak dimentsio bakoitzean

#### Bizitzarekiko gogobetetzea

Otik (ezer ez) 10erako (asko) eskala batean 7,61ean dago bizitzarekiko gogobetetze-maila.

Patroi bera ikusten da kasu guztietan: batezbestekoaren gainerik kulturaren parte hartzen dutenak zertxobait gogobeteagoak daude bizitzarekin. Parte hartzeko modu guztietan ikusten dira aldeak, praktika digital aktiboetan izan ezik (hori gorabehera, gainerako moduen funtzionamendua ikusteak egiazkotasuna ematen dio funtzionamenduari, txikiagoa bada ere).

22. grafikoa Gogobetetze-batezbestekoarekiko desbiderapena moduen arabera batezbestekoaren gainerik edo behetik dagoen parte-hartze kulturala egitearen mende



Nota: En el Anexo 5 se pueden encontrar las pruebas estadísticas de significación de las diferencias


#### Gizarte-tolerantzia

Argi samarra den tolerantzia/intolerantzia-kasu bat planteatzen da. Horrela, biztanleriaren % 6,5ek baino ez du sentimendu edo iritzi negatiborik adierazten jende desberdinarekiko.

Egindako probak adierazten duenez, dibertsitatearekiko sentimendu negatiboak dituzten pertsonen proportzioa gehitu egin duen kulturaren batezbestekotik behera parte hartzen duten pertsonen taldea (gorriz koloreztatuta ageri dira grafikoa).

23. grafikoa Sentimendu negatiboen proportzio global edo batez bestekoaren desbiderapena moduen arabera batezbestekoaren gainerik edo azpitik dagoen parte-hartze kulturalako taldearen mende.






Oharra: Aldeak adierazteko estatistika-probak aurki daitezke 5. eranskinean

### Gizarte-loturak sortzea

Ikusi denez, hamar pertsonatetik seik adierazten dute harremanak ezarri dituztela kultura-jardueraren bidez. Horrenbestez, parte-hartze kulturala zenbat eta handiagoa izan parte-hartze horri esker harremanak ezartzeko maiztasuna orduan eta handiagoa izango dela espero daiteke. Analisisiak horrela berresten du. Irudikatzeko, jarduera kulturaleri esker inoiz edo ia inoiz gizarte-harremanak izan ez dituzten pertsonen proportzioa hartzen du grafikoak, betiere murriztu egiten dena kulturen batezbestekoaren gainetik parte hartzen duen pertsonen taldean.

24. grafikoa Jarduera kulturalen bidez inoiz edo ia inoiz gizarte-harremanak ezarri ez dituzten pertsonen proportzio global edo batezbestekoaren desbiderapena, moduen arabera, batezbestekoaren gainetik edo azpitik dagoen parte-hartze kulturalerako taldearen arabera



Oharra: Aldeak adierazten dituzten estatistika-probak aurki daitezke 5. eranskinean



# 4. DATUEK KONTATZEN DUTENA: PARTE-HARTZE KULTURALARI BURUZKO GOGOETAK

Datuek, zenbakiak, ezagutzatik interpretatzen ditugunean hartzen dute zentzua. Zenbakiak diren bezala aurkeztu dira aurreko atalean. Atal honetan zenbaki horiei buruzko gogoeta egiten da.

Bi atal handitan antolatzen dira: arrazoiak eta inpaktuak. Kasu bakoitzean, maila akademikoan, sektore-mailan eta politika publikoen mailan gogoeta garrantzitsuenak azpimarratzen dituzten titularrak aurkezten dira.

## 4.1. Arrazoiei buruz

### Ez-publikoaren desagerpena parte hartzeko modu guztiak balioestean

Nabarmentzekoa da (ez) parte hartze kulturalaren –ez-publikoaren– arazoak merezi duen gogoeta. Kasu honetan lau modu desberdin balioetsiz definitzen eta aztertzen da parte-hartze kulturala, bi ardatz gurutzatzearen ondorioz: parte-hartze harkor edo aktiboaren ardatza eta parte-hartze analogiko-fisiko edo digitalaren ardatza.

Hori egitean, horretarako dauden bitarteko eta moduen bidez jarduera kulturalen eraren batean parte hartzen ez duten pertsonen kopurua ia hutsala dela ikus daiteke. Parte-hartzerik eza identifikatzen jarrita, publikoaren esku-hartze handiagoa eskatzen duten praktika aktiboetara gehiago lotzen dela ikusten da, zuzeneko ikuspuntu amateurretik zein edukiak sarean partekatuz. Ez parte hartzea arazo gisa ulertzen bada, lotuagoa egongo litzateke praktika aktiboari, jarduera kulturaletara joateari eta sarean eduki kulturalak ikusteari edo entzuteari baino.

Argi dago, banaketa praktika espezifikoei jarraikiz begiratzen bada, gehiago edo gutxiago zabaldua daudela<sup>24</sup>, arlo aktiboan zein harkorrean, fisiko-analogikoan edo digitalean. Ez-publikoaren garrantzia estatistikoki garrantzitsua da, kopuruarengatik, praktika jakin batzuetan, baina ez oro har.

Horrela, ez-publikoaren arazoa estu atxikita dago kulturaren parte hartzea zer den definitzen duen ikuskera partikular bati: jarduera harkor jakin batzuk (antzerkera, kontzertu batera edo zinera joatea, irakurtzea...) Edozein kasutan, arazoa parte-hartze kulturalaren maila baxua izan ahalko litzateke eta ez parte-hartzerik ez izatea, nahiz eta kasu horretan justifikatu egin beharko litzatekeen zen den gutxi eta problematikoa eta zer ez, horrek ekar ditzakeen balorazio-arloko arbitrariotasunak justifikatuz.

---

24. Jarduera kultural harkor guztiak egitearen maiztasun-datuetan interesatuta dauden pertsonentzat, inkestaren lurralde-txostenak kontsultatu daitezke hemen [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura\\_ohiturak/eu\\_ohiturak/ohiturak.html](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/kultura_ohiturak/eu_ohiturak/ohiturak.html)

Emaitza guztiak balioetsita, interesgarria da fenomeno arazo bezala kontzeptualizatzeari buruzko galdera egitea geure buruari: zeri jarraikiz ikusten da kasu batzuetan parte-hartze arazo bat eta beste batzuetan ez? Arazo bat norentzat? Zer intentziorekin konpondu behar da? Galdera horiei edo antzekoei positiboki erantzuteak lagungarria izan beharko luke politika publikoen garapena behar bezala planteatzeko.

### Parte-hartze kulturalari buruzko nozio zabaldua: noraino?

Azterlan honetan, kultura zer den edo zer ez den hierarkizatzeko premiarik gabe, esentzialismoetan erori gabe, posible da esanguratsua den eta funtsezkoa den nozio zabaldu batekin lan egitea.

Kulturaren nozio zabalduegi batek, termino antropologikotan egindako definizio baterako joerarekin, gaitasuna izango luke mota guztietako kultura-praktikak bere barnean hartzeko. Aitzitik, nozio hain zabala izango litzatekeen enpirikoki maneiaturia izateko gaitasun osoa galduko luke, baita funtsean desberdinak diren eta interes, inpaktu eta balio publiko zein pertsonal desberdina dakarten artean diskriminatzeko gaitasuna ere.

Parte hartze kulturalaren nozioa zabaltzen jarraituko du eskemak, baina funtsean kultura izaten jarraituko du, ikusmoldea ezagutzeko moduko osagai sortzaile bat biltzen duten jardueretan atxikita, eta maila pertsonal eta sozialean gaitasun esanguratsuak eskatzen eta sustatzen dituztenak. Horrenbestez, kulturaren definizio pragmatiko batekin lan egitea da kontua.

Kultura legitimatua deitutakoari buruzko debatearen testuinguruan gogoeta garrantzitsua da hau, sektoreak, erakundeek eta ikerketek kontuan hartu beharrekoa.

### Desparekotasunak parte-hartze kulturalen: besteak beste, barietate-kontu bat

Inkestaren emaitzekin argitaratutako emaitzen txostenekin ez bezala, denboraldi jakin batean barne hartutako jardura kultural bakoitza egiten duten pertsonen kopuruan oinarritutakoak izanik (azken urtean antzerkira zenbat pertsona joan diren, esaterako), kultura-dietaren dibertsitatearen

irizpidea du abiapuntutzat egindako analisiak (jardura batean, bitan, hirutan edo hainbatetan parte hartzen duten, denboraldi bakoitzean). "Arrazioaren" taimaren gainetik "menuaren" barietatea lehenesten da, eta horretan zein aldagaik eragiten duten ulertu nahi da.

Dena dela, ez da hurbilketa libre kantitateari dagokionez: egiako praktiken inguruan galdetzen denez, dibertsitate handiagoak kantitate handiagoa dakar halaber, posibilitateen espektroa zabaltzean parte hartzen duen pertsona potentzialen kopurua gehitzen delako. Aukera asko dituen menu ireki batek beste murriztago batek baino balizko bezero gehiago izatea eragin dezake. Horrenbestez, omniborismoa (parte-hartzearen barietatea) eta irenskortasuna (parte-hartzearen intentsitatea) uztartzen dituen konbinazio bat da.

Emaitzek adierazten dute badaudela alde esanguratsuak horrela ulertutako parte-hartze kulturalen. Faktoreek parte-hartzea nola garatzen den azaltzea lortzen dute, maila desberdinetan parte hartzeko modu bakoitzaren arabera. Barietatearen ikuspuntutik ere desparekotasunak egon daitezkeela erakusten dute.

Kasu honetan, gutxi-asko kulturaltzat kalifikatu ahalko liratekeen praktika guztien artean hierarkiarik dagoela (antzerkira joatea sarean musika entzutearen gainetik, adibidez; edo museo batean erakusketa bat bisitatzea marrazkia praktikatzaren gainetik) baztertuta, parte-hartze hori nolako den ezagutzean jartzen da fokua. Parte hartzeko modu guztiak (gutxi-asko aktiboa, digitala edo fisikoa) eta ezaugarri dituzten aldagaiek eta bakoitzari lotzen zaizkion patroiak ulertu nahi dira. Hau da, omniborismoa/dibertsitatea eta irenskortasuna/intentsitatea modu bakoitzean ikertzen da.

Hori horrela, ikus dezakegunez, ereduak gaitasun esplikatzaile handiagoa dute parte-hartze harkorrari dagokionez praktika aktiboek dagokienez baino. Praktika aktiboetan ezagutza gutxi dago nork parte hartzen duen, eta zer desparekotasun-mekanismo eta desparekotasun-ardatzek parte hartzen duten ulertzei buruz (mekanismoak edo ardatzik badago). Literatura tradizionalak desparekotasun-faktore eta desparekotasun-ardatz garbiak identifikatzea lortu du parte-hartze harkorrean, hala nola ekonomikoa zein hezkuntza-arlokoa. Desparekotasun-faktore eta desparekotasun-ardatz horiek, ez dute jarduten, edo beste modu batean jarduten dute, parte hartzeko beste moduetan.

## Parte hartzeko moduen dibertsitatea, faktore esplikatzaileen dibertsitatea

Erabilitako ikusmoldeak, parte hartzeko modu artean bereiziz, argumentuak ekartzen ditu parte-hartze kulturalaren arrazioak ulertzeko saioan sakontzeko.

Normalean erdigunea eman izan zaio gai ekonomikoari, gizarte-bereizketaren hipotesiaren pisu historikoak eta inkestetan beretan adierazle handiagoak ikerketa-erreminta gisa sartu ez izateak eragindako inertziaren ondorioz ziur asko.

Alderdi ekonomikoak zein ikasketa-mailak, dimentsio sozioekonomikoan gizabanakoaren gizarte-posizioaren markatzaile gisa barnean hartutakoak, beren garrantzia erakutsi dute parte hartzeko modu harkorreen, alderdi harkorraren inguruan beren aztergaia eratzen duten beste ikerketa batzuetako emaitzen ildo beretik<sup>25</sup>.

Baina parte hartzeko gainerako moduetan faktore esplikatzaile tradizional horiek garrantzia galtzen dute. Praktika artistiko amateurren kasuan intzidentzia-gaitasun txikiagoa dute, eta kontrako posizio ekonomiko edo sozialeko adierazle batzuk parte hartzeko modu digitalarekin positiboki erlazionatzen direla ere ikus daiteke.

Agerian geratu denez, eredu esplikatzaileak azalpen-jardun egokia dute parte-hartze harkor fisiko edo analogikoaren eta parte-hartze digital harkorraren kasuan:

**1.** Lehenengoari dagokionez, frogatzen du parte-hartze kulturalaren faktore esplikatzaileei buruzko ezagutzak parte hartzeko modu batentzat balio duela espezifikoki; dena den, praktika artistiko amateurren burutzapena askoz ere gutxiago azalduta dago, eta aldagai esanguratsu askoz ere gutxiagorekin balioetsitakoen artean. Emaitzek, balioetsitako ereduaren pean, jarduten ari direnak ikusi gabeko aldagaiak direla erakusten dute, edo ez dagoela patroiz esplikatzaileerik eta parte-hartzea aleatorioa dela, ezein erregulartasunek markatzen

ez duen erabaki indibidualen emaitza. Jarduera guztiei zuzendutako begirada espezifikoki bat lagungarria izan daiteke emaitza horiek aztertu eta hobeto ulertzeko, desparekotasun-faktore edo desparekotasun-ardatzak identifikatuz edo baztertuz.

**2.** Bigarrenari dagokionez (parte-hartze digital harkorra), Interneten erabilera ezaguna izateak dakarren oztopoa gaitasun esplikatzailea hobetzeko lagungarria da aldagaiak nola dauden erata kontuan izanda. Hori gorabehera, hori ez da berdin gertatzen praktika digital aktiboari dagokionez: bi kasuetan ere oztopo bat dela pentsatzea arazoizkoa dela -nabaria delako- irudi badezake ere, alderdi harkorrean baino ez da garrantzitsua. Aurrerago egingo dugu gogoeta Interneten nola interpretatu behar den jorratzeko, bi moduen arteko oztopo teknologiko horren aldea aurkikuntza esanguratsua baita.

Esparru digitalari dagokionez, badaude nabarmentzeko beste emaitza batzuk. Lehen, jatorri geografikoa parte-hartze digitalarekin (bereziki aktiboari) lotzeari ematen zaion izaera positiboa. Atzerritarrek gehiago parte hartzen dute arlo digitalean, eta horrek adieraz dezake bere sustrai geografikoaren adierazpen kulturalarekin lotura mantentzeko jarduera posibleak egon daitezkeela. Bigarrena, emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzen dute esparru digitalean, eta gehiago, aldiz, esparru fisiko/analogikoetan.

Berezitasun horiez guztiez haratago, azterlanaren emaitzek berriz ere erakusten dute jada ezagunak diren aldakortasun-iturriak hobeto ezagutzeko premia, baita gaur egun ikusi gabeko aldakortasun-iturri berriak aztertzekeo premia ere. Modu guztietarako da hori baliagarria:

\_\_\_\_\_ Jada ezagunak diren faktoreek eragindako aldakortasunari dagokionez, azpimarratzekoa da hobeto ulertu beharra zer mekanismo dauden ikasketa-mailaren, sexuaren edo adinaren azpian.

\_\_\_\_\_ Gaur egun ikusi gabeko aldakortasun-iturriari dagokionez, alderdi psikologikoari kasu egiteko ildo berria nabarmentzen da. Horrek inplikatzeko du, halaber, ulertzea nola erlazionatzen den dimentsio sinbolikoago hori (alderdi psikologikoa) alderdi materialenarekin (diru-sarrerak, hezkuntza-maila...).

25. Kulturaren Euskal Behatokiaren Kulturaren eta pobrezia-ardatzaren inguruan (2016) txostenean honela sakondu daiteke puntu horri dagokionez: [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_kultur\\_pobrezia\\_2016/eu\\_def/adjuntos/Kulturaren\\_eta\\_pobrezia\\_ardatzaren\\_inguruan\\_2016.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_kultur_pobrezia_2016/eu_def/adjuntos/Kulturaren_eta_pobrezia_ardatzaren_inguruan_2016.pdf)



Gainera, oraindik beharrezkoa da jardueren motarekin, kantitatearekin eta hemen aztertutako bariedade berarekin balioetsitako faktore esplikatzaileekiko erlazio desberdinean aurrera egitea, kasu guztietan kantitate eta modu berean eragiten ote duten geure buruei galdetuz.

## Hezkuntza- eta kultura-desparekotasunen arteko errefortzua: zirkulua haustea

Gogoeta zehatzik ezean, erraz nahasi daitezke dibertsitatea eta desparekotasuna.

- \_\_\_\_\_ Sozialki balioetsitako baliabide baterako sarbide bereizgarriaz hitz egiten dugunean dago desparekotasuna, betiere abantaila sozial bat emanez baliabide horretara sartzen denari.
- \_\_\_\_\_ Aitzitik, despareko itzulkinik eskaintzen ez duen baliabide baterako sarbide bereizgarri batekin lotuta dago dibertsitatea, eta, hori horrela, ez dauka garrantzirik desparekotasunari dagokionez, hain zuzen ere.

Dibertsitatearen (edo desberdintasuna) eta desparekotasunaren arteko muga-puntua baliabidera sartzeak eragiten duen abantaila sozialari kasu eginez gertatzen da. Abantaila bat badago, desparekotasuna sortzen da; halakorik ez badago, dibertsitateaz hitz egin dezakegu soilik.

Gainera, gizarte-desparekotasunak inplikatzan du baliabide horretarako sarbidea faktore sozialek baldintzatzen dutela: ez da aukeraketa indibidual eta aleatorio bat, eta, aitzitik, aldagai soziologikoen markatutako patroiei jarraitzen die.

Kulturaren kasuan bi ezaugarriak ikus ditzakegu: sozialki balioetsitako baliabidea eta aldagai soziologikoen baldintzatzen dute kulturarako sarbidea.

Azterlanean erabilitako ikusmoldea lagungarria da kulturari, hezkuntzari eta desparekotasunari buruz gogoeta egiteko aurkikuntza honi esker: praktika artistiko amateurrak egitea eta parte-hartze aktibo digitala ez dira, ikerketa honen datuekin, azterketa-mailaren mendeko.

Gizarte-bereizketaren hipotesiaren garrantzi-galerak bere eragina gauzatzen du artera eta kulturara sartzeko eta haiei onura ateratzeko (gogobetetzea) beharrezkoak diren trebetasun kognitiboen adierazle gisa.

Ikasketa-mailaren mekanismoak parte-hartze harkorrerako garrantzitsuak izateak –baina ez ordea parte-hartze aktiborako– adierazten du posible dela beharrezkoak diren trebetasunak entrenatzea eta kulturaren onurak kulturatik beretik sustatzea.

Desparekotasunak zein mekanismoren bidez gertatzen diren ezagutzea esanguratsua da desparekotasun horietan esku hartzeko. Datuen interpretazio jakin batzuek nekez egingarria den jokaleku batera (eta beharbada ezta desiragarria ere nahitaez) eramaten gaituzte, eta horren emaitzen ebidentziarik ere ez dago: kultura-arloko desparekotasunak konpondu egingo lirateke herritar guztiak unibertsitate-tituluak lortuko balituzkete.

Baina ikasketa-mailaren eta parte-hartze kulturalaren arteko erlazioa ez da determinista, eta unibertsitate-tituluak duten pertsona guztiak ez dute parekotasunez parte hartzen kulturaren, eta, horrenbestez, ikasketa-maila adierazle on bat besterik ez da, interpretatu eta egoki sakabanatu beharrezkoa zer estrategiari ekin ahal zaion ulertzeko.

Kultura-hezkuntza binomioa egikaritzen duten elkar indartzeagatik da esanguratsua, positiboan zein negatiboan. Kulturaren misioak ez zuen zertan izan hezkuntza-mailak hobetzea, eta hezkuntzarenak ere ez du zertan izan parte-hartze kulturalako mailak hobetzea. Baina bi kasuetan ere, eta hori alor bakoitzetik bereiz edo batera landu daiteke, misioak pertsona guztiak beharrezko ezagutzarekin eta gaitasunekin hornitu behar ditu parte-hartze kulturala bere zabaltasun osoan gozatzeko.

Ildo horretan nabarmendu behar da zirkulua hausteko ideia: kontua ez da batek bestea indartzea, baizik eta biak orientatu daitezela eta herritar kritiko eta prestatuak indartu ditzatela mota guztietako adierazpen artistiko eta kulturalak deszifratzeko. Kontzeptuzko aldaketa horrek desparekotasun kulturalaren mekanismoetara hezkuntzatik hobeto hurbiltzea ahalbidetu behar digu, eta kulturatik beratik estrategia hobeak diseinatzea.

Kasu horretan, baita desparekotasun-faktoreak –hala nola ekonomikoak– berdintzen diren jokaleku batean ere, hitz egin ahalko genukeen dibertsitateaz eta ez desparekotasunaz. Gaur egun, hori gorabehera, errealitateak erakusten du –erabilitako terminotan– askotariko praktikak uztartzen direla despareko praktikekin.



## Faktore psikologikoen garrantzia

Normalean politika publikoek oztopo materialak balioesten dituzte oztopo garrantzitsuenen artean, gai ekonomikotik beretik hasi eta irisgarritasun geografikoarekin eta mugikortasunarekin lotutakoekin buka.

Oztopo materialen kontraposizio gisa, gero eta beharrezkoagoa ari da izaten oztopo psikologikoak ere balioestea. Publikoaren segmentazio teorikoetan nolabaiteko presentzia badute ere, ikerketa gutxi dago horren inguruan.

Oztopo horien garrantzia berriki aldarrikatua izan da (ez) parte-hartzearen arazoarekiko<sup>26</sup>. Ikuspuntu horretatik, parte-hartze kulturala baztertea ez litzateke estrukturala izango, gizabanakoarekin lotuta ez dauden gai materialengatik, baizik eta psikologikoa, subjektiboa. Autobazterketa bat izango litzateke, horrela. Adibide gisa, nork bere burua esperientzia kulturalarekin lotuta ez dagoen zerbait bezala ikusteko moduaren pean ematen da, "kulturaren munduarekin" lotuta ez dagoen zerbait bezala.

Fenomenoaren izaera psikologiko, subjektibo edo indibidualak, zeinaren arabera "autobazterketa" bat bezala ere balioetsi daitekeen, ez dakar nahitaez patroiz sozialek arautu gabeko fenomeno bat izatea. Aitzitik, erabat determinista izan gabe, aurrejoera psikologiko hori gehiago dago lotua profil sozial jakin batzuei.

Maila sozial eta psikologikoko faktoreek, hortaz, erlazioa izan dezakete. Horri ez zaio begirik kendu behar parte-hartzearen inguruko ikuspegi inozoak ez sustatzeko, erabaki indibidual baten produktu gisa jorratuko dutenak kontuan izan gabe gizabanakoak testuinguru sozial espezifiko batean daudela txertatuta eta biografia propio bat dutela.

Interesgarria da tarte psikologiko horrek mugaketa bat dakarrela, norbera urrun, kanpo edo loturarik gabe sentitzen den objektuaren eraikuntza bat. Propio kulturala den espazio baten ("kulturaren mundu bat") kontzeptualizazio horrek kultura zer den eta zer ez den finkatzen duen definizio bat inplikatzeko, (ez) parte hartze kulturalaren arazoarekin uztartzen den zerbait.

Kultura zer den biltzen duen nozio bat existitzea eta onestea (jarduera jakin batzuei lotutako sozialki partekatutako nozio bat, beste jarduera batzuk kanpoan uztea inplikatzeko duena) lagungarria izan liteke parte-hartze kulturalarekin tarte psikologiko, subjektibo, bat sortzeko. Politika kulturala, sektorea eta ikerketa bera (jardueraren gida diren kontzeptuzko eskemak) antolatzeko ere izan daitezke fenomeno horren jatorria.

Baina parte hartzearekin dagoen edo ez dagoen erlazio horretaz aparte, dimentsio psikologikoa garrantzitsua izan liteke halaber nola parte hartzen den ulertzeko, parte hartzeaz edo ez parte hartzeaz haratago. Puntu honetan sartzen da parte-hartze kulturalaren edo hainbat premia psikologikoren gogobetetzearen gain, parte-hartze kulturalerako motibazio desberdinei bide ematen diena.

Dibertsitatea badago ere, eta garrantzitsua da hori beti perspektiban izatea, nolabaiteko erlazioa dago parte hartzeko moduen eta motibazioen artean: parte-hartze kulturalerako modu guztiek ez dituzte premia berak gogobetetzen. Modu desberdinak izaera desberdinekoak dira, eta alde-desberdintasun hori pertsonak parte hartzeko modu bakoitzera erakarriak diren motibazioetan islatzen da. Modu harkorretan ezagutzarako eta autorrealizazioarako motibazioa nabarmentzen da. Internet nabarmentzen da bereziki ezagutza-bitarteko gisa. Modu aktiboetan, aldiz, sozializatzeko eta esperientzia beste jende batzuekin partekatzeko motibazioa nabarmentzen da. Arlo digitalean, nabarmen ikusten da desberdintasuna: autoerrealizazioaren eta jakintzaren motibazioa alderdi harkorrekarekin doa, eta sozializazioarena, aldiz, alderdi aktiboarekin.

Begirada hori garrantzitsua izan liteke ez bakarrik modu desberdinentzat, baizik eta jarduera desberdinentzat harkorren artean. Jarduera harkorrek alderdi aktiboarekiko edota digitalarekiko multzo homogeen bat osatzen badute ere, haien artean ere desberdintasunak dauden noiz egiten diren, non egiten diren, nola egiten diren, maila kognitibo edo estetikoan zer orientabide duten eta beste zenbait punturi buruz, eta horrek ere desberdintasunak marka ditzake jarduera horiek egitea bultzatzen duten motibazioetan.

Gainera, alderdi psikologikoaren rola balioesteak ohiko faktore baten interpretazio-gakoak eskaintzen ditu: sozializazio kulturala haurtzaroan, beren bizitzetako lehen urteetan pertsonak izan dezaketen transmisio kulturala, faktore horren esposizio pean egoteagatik. Horrek aurrejoera edo lehentasun batzuk eratzen ditu, parte-hartze kulturalerantz bideratzen dutenak.

26. Arts Council England (2008) "From indifference to enthusiasm: patterns of arts attendance in England": <https://webarchive.nationalarchives.gov.uk/20160204122823/http://www.artscouncil.org.uk/advice-and-guidance/browse-advice-and-guidance/from-indifference-to-enthusiasm-patterns-of-arts-attendance-in-england>



Ildo horretan, kulturak pertsona bakoitzarentzat duen balioa atzitzeko aldagai bat ere barnean hartzen du azterlanak, hark horren inguruan izan dezakeen joera identifikatuz. Emaitez erakusten dute modu guztietan dela esanguratsua, baina bereziki garrantzitsua da parte-hartze harkorreen. Arrazoizkoa da pentsatzea honen arrazoa izatea zer ulertzen duen pertsonen kopuru handi batek "jarduera kulturaltzat": batez ere, ohiko jarduera harkorretan pentsatzen dute, eta gutxiago arlo artistiko amateurrean eta digitalean edozein formatan.

Praktika artistikoak normalean nahasiak geratzen dira hezkuntzako edo herritarren partaidetzako arloetan (gizarte-etxeen markoan, adibidez); digitalek, aldiz, ez dute kultura-erakundeen zuzeneko arreta berezirik jasotzen, artxibatze eta zabaltze bitarteko bat izateaz haratago. Beste kontu bat dira plataforma musikal eta ikus-entzunezkoen plataforma handiak, goitik behera aldatu baitute eduki horien kontsumoa. Orain beharbada kultura-erakundeek bide hori indartzea erabakiko dute, pandemiaren eraginez eta parte-hartze kulturalaren gunea nahitaez alor digitalera aldatu delako.

Bizitza kulturala sarera irauli den azken hilabete hauetako nahitaezko esperimenduaren ondoren, proposamen motaren inguruko gogoeta egin behar da irakurketa digital batetik eta, aurrekoa bezain garrantzitsua, publikoekin ezartzen den harreman desberdina kontuan izanda. Zenbait erakunde prozesuan ikasi dutela onartzen dute, eta beren gune digitala beren eskaintza fisikoarekin batera atxikitze eta indartzeko asmoa dute. Hori ikusita, ikerketa-possibilitateak zabaltzen ditu horrek gerora begira alor horretan. Are gehiago egiaztatzen badugu ingurune horretan beste arau batzuekin jokatzeko dela, komertzialak zein kontsumoarekin edo parte-hartzearekin lotutako patroienak.

### **Internet gaitasun bezala eta ez baliabide bezala: izateaz edo ez izateaz haratago**

Normalean baliabidez hartzeko da Internet, eta baliabide horretarako sarbidea izan dezakegu edo ez. Hori gorabehera, ikusmolde horren urritasunari buruzko gogoeta egin behar da. Internetera sartzeko aukeren zabalkunde izandako aurrerapenek markatzen dute urritasun hori. Gizarte-desparekotasunen azterketak adierazten duenez, ez da gauza bera aukera baterako sarbide formala izatea eta aukera hori baliatzeko beharrezko gaitasunak izatea.

Azterlan honetan aldagai bat gehitzen zen, Interneten erabilera erregularra egiten den edo ez galdetuz. Horrek baliabidea nolabait ezaguna izatearen inguruan, nolabaiteko gaitasuna izatearen inguruan, diskriminatzen laguntzen du, sarbidea izateaz edo ez izateaz haratago. Adibidez, begirada horrek parte-hartze digital harkorretarako eta aktiborako emaitza desberdinak interpretatzen laguntzen du: aktiboan adin-faktoreak koefiziente handiagoa du Interneterako sarbide erregularrenak baino, betiere adierazita kontua ez dela horrenbeste Interneterako sarbidea dugun edo ez, baizik eta zer erabilera ematen zaion, bere potentzialaren ezagutza eta hura erabiltzeko trebetasunak.

Eta horrela, Internetik kultura-jarduera bertan garatzen den bitarteko gisa duen garrantziaz haratago, Internet jendeari ezaguna izate horretan parte hartzeko beste moduek ere eragiten dutela ikusten da. Hau da, Internet ez da soilik bitarteko berri bat, bitarteko digitala, zeinean jarduera kultural bat garatzen den, eta, horrekin batera, bitarteko analogiko edo digitalean parte-hartzea bultzatzen dezakeen baliabide ere bat bada (horrela adierazten dute emaitzek parte hartzeko modu fisiko/analogikoetan, harkorrek zein aktiboak). Interneteko erabilera ezaguna izatea positiboki erlazionatzen da kulturaren gehiago parte hartzearekin.

## **4.2. Inpaktuei dagokienez**

### **Kultura-politika publikoen ebaluazioa**

Asko dira entretenimendu soiletik haratago arteari eta kulturari lotzen zaizkion onura sozial eta indibidualak, hala nola ezagutza eta trebetasun pertsonalak hobetzea, autoerrealizazio-sentimendua edo gizarte-kohesioa eta komunitatea indartzea. Izan ere, askotan alde batera uzten bada ere eta erreferentziarik gabeko elementuak aipatzen diren arren, oso garrantzitsua da parte-hartze kulturalaren balioa zein den argitzea. Ez soilik teoria-mailan, baita enpirikoki ere, praktikan.

Bere onuren gaineko ikuspuntu hori bat dator kulturaren alderdi anitzeko balioari buruzko azterketarekin. Lan bereziki interesgarri eta beharrezkoa da, kultura-politika publikoak ebaluatzeko, eta kultura eta eremuko desberdintasun sozialak gainditu beharra ganoraz eta segurtasunez defendatzeko.



## Kulturaren inpaktu positiboei buruzko ebidentzia

Azterlan honetan hiru item bildu dira ikertze-xedeetarako, normalean kultura-praktikarekin lotzen direnak eta balio soziala dutenak: bizitzarekiko gogobetetzea, gizarte-kohesioa indartzea, eta gizarte-tolerantzia sustatzea.

Beharrezkoa da azterlan honen ikertze-izaera nabarmentzea, eta emaitzetatik, beste ezer baino lehen, diseinu espezifikoaren beharra ondorioztatzen dela, hain zuzen ere, kulturak, aztertutako inpaktuen arrazoi gisa betetzen duen zeregina biltzeko gai diren diseinuak. Diseinurik ohikoenak, azterlan demoskopikoetan oinarritzen direnak, konkurrentzia, bi noranzkoko korrelazio soila aztertzeko gai baino ez dira, baina ez parte-hartze kulturalak ongizate indibidual eta sozialean duen kausalitatea aztertzeko gai. Horregatik dira beharrezko diseinu metodologiko espezifikoak dauzkaten azterketak, eta zuhurtziaz jokatu behar da, ezinbestean, inkesta-datuak interpretatzeko garaian.

Aurrekoa gorabehera, azterketa honek korrelazio positibo bat detekta dezake hartutako parte-hartze kulturalaren (omniborismoa/irenskortasuna) eta bizitzarekiko gogobetetzearen, lotura sozialak sortzearen eta gizarte-tolerantziaren sustapenaren artean. Arrazoizkoa da pentsatzea beste inpaktu batzuk aurki daitezkeela baldin eta beste begirada batzuk aintzat hartzen edo balioesten badira, jarduera mota edo jarduera jakin hori egiteko baliatutako intentsitate espezifikoak, adibidez.

Askotariko dieta kultural bat batezbestekoaren gainetik duten pertsonen artean, bizitzarekiko gogobetetzea handixeagoa da. Batezbestekoaren gainetik eta azpitik parte hartzen dutenen artean bizitzarekiko gogobetetzean nabari den aldea estatistikoki esanguratsua da kasu guztietan, praktika digital aktiboetan izan ezik, eta nabarmen handiagoa parte-hartze harkorraren kasuan. Parte-hartze kulturala eta bereziki harkorra nola eraikitzen diren aintzat hartuta, litekeena da hain herrikoak ez diren jarduera eskusiboagoetan parte hartzen dutenak izatea puntu gehien ematen dituztenak.

Hala, emaitza horiek aditzera ematen dute mugatuago dauden jarduerak gogobetetze handiagoa ematen dutela<sup>27</sup>, hau da, jarduera bat zenbat eta

bereziago izan, orduan eta bereziago sentiarazten gaituela, edo bestela, jarduera batek zenbat eta ezagutza, alde aurreko esperientzia edo jarrera zorrotzagoa eskatu, orduan eta gogobetetze handiagoa itzultzen digula. Ildo horretan, gogora ekartzekoa da autoerrealizazio- eta ezagutza-motibazioa parte-hartze harkorrarekin nolabait lotuta zegoela. Horrek berretsi egin dezake, halaber, parte-hartze harkorraren bitartez nortasun propio bereizgarri bat osatzen eta adierazten dela dioen ideia.

Aldi berean, modu guztietan gogobetetzearekiko lotura positiboa ageri den arren, bestelako moduek zerikusi handiagoa zuten beste motibazio batzuekin. Horrek aditzera eman dezake, halaber, jarduera jakin batzuen izaera sozialak (erlazionala, partekatua) gogobetetze handiagoa sorrarazten duela. Praktika artistiko amateurretarako eta parte-hartze digitalerako balio dezake horrek. Erlazio horiek egiaztatzeko beharrezkoa litzateke azterketa espezifiko bat egitea, baina nolahi ere arrazoizkoa da pentsatzea bizitzarekiko gogobetetzearen atzean iturri bat baino gehiago egon daitekeela, eta iturri horiek, parte-hartze kulturalaren esparruan, behar psikologikoak motibazio kulturaltzat jotzeko eskemarekin zerikusia izan dezaketela: premia sozialak, emozionalak, autorrealizaziokoak edo kulturalak/ezagutzakoak gogobetetzea.

Gizarte-loturen edo gizarte-kohesioaren sorkuntzari dagokionez ere, parte hartzeko modu guztiek asoziazio positiboa dute gertaera horrekin. Xehetasunetara joz, eredu esplikatzaileetan ikusten bazen ere parte-hartze digitalean motibazio soziala garrantzitsua zela, parte hartzeko modu fisiko edo analogikoekiko asoziazio handiago bat dagoela nabari da. Ildo horretan, kontuan hartzekoa da jarduera kulturalaren imajinario sozialean jarduera mota espezifiko batekiko (harkorrarekin, bereziki) asoziazio bat gerta litekeela, eta emaitza horien atzetik hori egon litekeela. Edonola ere, asoziazioa positiboa da kasu guztietan, eta litekeena da parte-hartze digitalak lotura gehiago baino ahulagoak sortzea, eta fisikoak, aldiz, lotura gutxiago baino sendoagoak. Ildo horretan, kontuan hartu beharko genuke lotura sendoak edo ahulak izan, guztiek ere garrantzi bera dutela<sup>28</sup>.

27. Filimon N (2018) "El impacto de la cultura y el ocio en la felicidad de los españoles" (Kulturaren eta aisialdiaren inpaktua espainiarren zorientasunean) La Caixaen Gizarte Behatokia:

<https://observatoriosocialcaixa.org/es/-/el-impacto-de-la-cultura-y-el-ocio-en-la-felicidad-de-los-espanoles>

28. Granovetter M (1973) "The strength of weak ties", American Journal of Sociology, 78(6): 1360-1380



Azkenik, jarrera toleranteagoen sustapenari dagokionez, analisiak identifikatu du dibertsitate sozialarekiko sentimendu negatiboak indartsuagoak direla kulturen batezbestekoaren azpitik parte hartzen duten pertsonen artean. Asoziazioa esanguratsua da kasu guztietan, baina bereziki garrantzitsua parte-hartze digitalaren kasuan. Horren aurrean, adinaren efektua eta/edo mundurako leiho irekiko efektua ba ote dagoen galde diezaiokegu gure buruari. Eraitza horiek aintzat hartzerakoan, interesgarria litzateke eredu esplikatzaileetara itzultzea: parte-hartze digitalean, atzeritarra izateak (zehazkiago, Europa kanpotik etortzea) efektu positiboa zeukan. Hau da, atzeritarrek parte-hartze digital handiagoa dute. Hortaz, atzeritik etorritako pertsonak dira tolerantzia handiagoa erakusten dutenak, eta litekeena da emaitzak horren ondorio izatea.

### **Kultura, berez: parte-hartze kulturalaren erreibindikazio zoriontsu bat, hitzaren zentzurik onenean.**

Askotan, kultura-sektoreak beste sektore batzuei deitzen die erabilgarria dela justifikatzeko: okupazioan eta aberastasunean dauzkan inpaktu ekonomikoengatik, turismoa hobetzeko duen gaitasunagatik, bere ahalmen hezigarriengatik eta sustatzen dituen trebetasunengatik, lurralde-markak eta berezitasuna sortzeko duen gaitasunagatik, gizarte-kohesioko eta komunitateko onura sozialengatik...

Horregatik, gero eta gehiago dira kulturak berezko balioa ere baduela aldarrikatzen dutenak. Kulturak bere balioa aurkitzeko gai izan behar duela, besteak beste herritarrek eta arduradun politikoek berez hobeto balioesten dituzten aparteko eremuetan sortzen duen balioari erreparatu beharrik gabe.

Bizitzarekiko gogobetetzeak edo zorionak eskaintzen duten irizpideak edo balio-judizioak ez du beste inora begiratzea eskatzen, autojustifikatu egiten da. Kultura garrantzitsua da zoriontsu egiten gaituelako, eta hori bada nahiko arrazoia zoriontsu ere egiten gaituzten beste alderdi batzuen parean aldarrikatzeko.

Hori hala da zoriona pertsonen azken helburuetako bat delako, garrantzitsuenetako bat. Ikusi besterik ez dago herritarren ongizatea (gogobetetzea eta zoriona) botere publikoen funtsezko helburuetako bat

dela, eta ekonomialari klasikoen arretagune ere izan zela. Hortaz, zoriontsu egiten gaituen edozein jarduerak balio publikoa duela esan dezakegu. Hori ahaztu edo desitxuratu egiten da normalean, herritarren ongizatea indartzen ahalegintzen diren helburu eraginkorragoetan.

Kulturatik abiatuta, zorionaren ikuspegi praktikoa eta zientifiko batean sakondu behar da, zoriona neurtuz eta hipotesi eta teoriak eginez. Horrek esan nahi du diskurtso jakin batzuetan nagusitu ohi diren abstrakzio eta esentzialismotik ihesi beharra dagoela. Hurbilketa pragmatiko batek alde batera utzi behar du bizitza zoriontsu edo bizitza on baten ezaugarriak identifikatu eta ezartzeko asmoa, eta, horren ordean, eremu zabalago baten emaitzak lortu behar ditu, aurreiritzirik gabe jardunez.



## 5. SINTESIA ETA ONDORIOAK

Azterlan honek parte-hartze kulturalaren berezko ikusmolde bat eraiki du. Kulturaren kontzeptualizazioan ohikoak diren mugak gainditu nahi ditu ikusmolde horrek, jarduera kultural harkorren ohiko multzoari praktika aktiboak eta plano digitala erantsiz.

Gainera, parte-hartze kulturalari begiratu dio barietatea eta kantitatea, *omniborismoa* eta irenskortasuna, nahastuz, arreta benetako praktketan jarri duelako gustu edo interesetan jarri beharrean, garrantzizko denbora-dimentsio bat ere bilduz.

Parte-hartze kulturalari buruzko nozio zabal bat izatea, parte-hartzaile edo ikuslerik ez izatearen arazoa ezabatzeko lagungarria dela dioen ideia berretsi dute emaitzek. Nabarmentzekoa da hori muga lausorik bildu gabe egiten dela, hierarkizatu beharrean, praktika mota bakoitza kategorizatuz eta behar bezala ulertuz.

Parte hartze kulturala ohikoak ez diren beste jarduera batzuetara zabaldu ahala, faktore esplikatzaile garrantzitsuei buruz gutxiago dakigula geratu da agerian. Ikusi dugunez, ohiko ikusmolde sozioekonomikoak emaitza onak ematen ditu parte-hartze harkorrerako, baina emaitza on horiek desagertu edo aldatu egiten dira gainerako parte-hartze moduetarako.

Zenbait faktoretarako (jatorri geografikoa, adina eta sexua) erlazio garrantzitsuak atzeman dira, baina Interneten erabilerarekin eta faktore psikologikoekin zerikusia duten emaitzak nabarmendu dira bereziki. Aldagai esplikatzaileetan sakondu behar da, gizarte-klasetik eta ikasketetatik haratago.

Egindako lanetik, honako **10 gai** hauen gaineko hausnarketak ondorioztatu dira:

- 1.** Parte-hartzerik ez izatearen arazoa, eta haren desagerpena parte hartzeko modu batzuk aintzat hartzerakoan.
- 2.** Parte-hartze kulturalaren nozioa zabaltzea eta kultura legitimatuaren gaineko eztabaida.
- 3.** Desberdintasunek bere horretan jarraitzea, dieta kulturalaren barietateari dagokionez ere.
- 4.** Bestelako parte-hartze moduetarako faktore esplikatzaile garrantzitsuen gaineko ezagutza zabaldu beharra.
- 5.** Hezkuntza- eta kultura-desparekotasunen arteko errefortzua gainditzea.
- 6.** Arretagunea faktore psikologikoetara ere zabaltzeko beharra.
- 7.** Internet gaitasun gisa: Internet eduki edo ez edukitzetik haratago, Internet erabiltzeko trebetasunak izatea.
- 8.** Kultura-politika publikoak sistematikoki eta inpaktuen arabera ebaluatzeko beharra.
- 9.** Parte-hartze kulturalak, bizitzarekiko gogobetetzean, gizarte-tolerantzian eta lotura sozialak sortzean inpaktu positibo nabaria duela ondorioztatzea.
- 10.** Kulturak, bere burua justifikatzeko, berezko ez dituen kanpo-arrazoiak ematearen konplexua gainditzeko bideak.

Emaitzak eta hausnarketak garrantzitsuak dira **politika publikorako**, eskubide kulturalen ikuspuntua aintzat hartuko duen parte-hartze kulturalako nozio batetik lan egin beharra aditzera ematen duten heinean<sup>29</sup>.

29. Honako esteka honetan kontsulta dezakegu Kulturaren Euskal Behatokiak eskubide kulturaletarako hurbilketari buruz egin berri duen txostena (2019): [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_eskubide\\_kulturalak\\_2019/eu\\_def/adjuntos/eskubide-kulturalak-txostena-2019.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_eskubide_kulturalak_2019/eu_def/adjuntos/eskubide-kulturalak-txostena-2019.pdf)



Gainera, **sektorearentzat** eta parte-hartze kulturala sustatzen duten **administrazioentzat**, garrantzitsua da kasuan-kasuan esanguratsuak diren faktore horiek ezagutzea. Bereziki garrantzitsua da publikoen alderdi psikologikoetan sakontzea. Publikoen segmentazioak egitean, dimentsio psikologiko hori txertatzeko ahalegina egin behar da, adierazle demografiko eta sozialak soilik txertatu beharrean.

Etorkizuneko **ikerketarako**, egindako azterketak zenbait ildo garrantzitsu irekitzen ditu, hala nola:

- Publikoen segmentazio automatikoa konglomeratuen analisiko teknikak erabiliz (*cluster analysis*), eta haien karakterizazioa, parte-hartze kulturalako zer patroi dauden jakiteko eta patroi bakoitzeko pertsonen ezaugarriak zein diren aurkitzeko.
- Herritarren artean neurri handiagoan eta txikiagoan hedatu diren praktikak bereiztea, eta ohiko aldagai esplikatzaileek kasu bakoitzean nola diharduten aztertzea: zer dela-eta hedatu dira gehiago praktika batzuk beste batzuk baino? Faktore sozial edo ekonomikoengatik, edo bestela, gustuengatik edo ezagutzen ez ditugun beste faktore batzuegatik?
- Aldagaien (esaterako, haurren sozializazioa eta ikasketa-maila) zuzeneko eta zeharkako efektuak kuantifikatzeko gai diren bideak azaltzeko ereduak eraikitzea.

# ERANSKINA

## 1. eranskina: Atal metodologikoa

### Inkestaren fitxa teknikoa

Laginaren informazio teknikoa labur-labur aurkezten da, eta, informazio gehiago nahi duenak, txosten metodologikoa eta erabilitako galde-sorta kontsulta ditzake (bi dokumentuak Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean daude erabilgarri, txosten honen aurkezpenari lotuta).

#### Biztanleria- eta administrazio-eremua

Euskal Herria: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde.

#### Denbora-eremua

2018ko iraila-abendua

#### Laginaren diseinua

Ausazko lagin estratifikatua, esleipen ez-proportzionalarekin

#### Tamaina

6300 (6296 ponderazioaren ostean)

#### Laginaren errorea

±% 1,26 (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean erabilgarri dagoen txosten metodologikoan, laginaren erroreari buruzko estimazioa kontsulta daiteke, gurutze-aldagaien zati diren kategorietarako)

#### Konfiantza-maila

% 95,5 gehieneko zehaztugabetasunaren kasuan ( $p=q=\% 50$ )

#### Estratuak eta kuotak

- » Administrazio-eremuak
- » Udalerriko biztanleria-tamaina
- » Sexua
- » Adina
- » Euskararen ezagutza

#### Elkarrizketak egiteko metodoa

Elkarrizketa telefonikoa, ordenagailu bidez lagundua

#### Elkarrizketen iraupena

10-30 minutu

#### Ponderazioa

Estratu eta kuoten ordezkagaitasuna ziurtatzen da (horrek esan nahi du trukean ez duela eskaintzen banaketa proportzional bat, aztergai den unibertsoaren antzekoa).



## Analisian erabilitako aldagaiak

### Parte-hartze kulturalako aldagaiak

<p><b>Parte-hartze harkorra</b></p>	<p>Kasu guztietan, praktiken gaineko ikusmolde bati jarraitzen zaio, barietatearen (aldi kopurua bereizi gabe) eta kantitatearen arteko erlazio estua ezarriz: benetako praktikez ari garenez, barietate handiagoak kopuru handiagoa esan nahi du.</p> <p>Eskalak eraikitzen dira egiten diren jardueren kopurua batuz, Otik (bat ere ez) kasuan-kasuan aintzat hartutako gehieneko jardueren kopururaino (ondorengo zutabearen zehazten da).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Profilen diskriminazio handiago bat lortzeko, azken 12 hilabeteetako parte-hartzea erabili beharrean, azken 3 hilabeteetan jarduera jakin batzuetan parte hartu den edo ez erabiltzen da.</li> <li>— Honako praktika hauek hartzen dira aintzat, 9 praktika guztira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>· Zuzeneko ikuskizunak</li> <li>· Dantza</li> <li>· Antzerkia</li> <li>· Kontzertuak</li> <li>· Zinema</li> <li>· Liburutegia</li> <li>· Liburu-irakurketa</li> <li>· Museoak</li> <li>· Arte-galeriak</li> </ul> </li> </ul>
<p><b>Parte-hartze aktiboa (Praktika artistiko amateurak)</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>— Parte-hartze aktiboari dagokionez, azken 12 hilabeteetan praktika artistiko amateurrik egin diren edo ez da ardatz hau azaltzeko balioesten den faktorea.</li> <li>— Honako praktika hauek hartu dira aintzat, 12 guztira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>· Antzerkia egitea</li> <li>· Dantza, balleta</li> <li>· Abesbatza batean kantatzea</li> <li>· Musika-tresna bat jotzea</li> <li>· Argazkiak egitea</li> <li>· Bideoa egitea</li> <li>· Ikus-entzunezko beste batzuk egitea</li> <li>· Bertsolaritza</li> <li>· Idaztea</li> <li>· Pintatzea edo marraztea</li> <li>· Eskulanak eta artisau-lanak egitea</li> <li>· Irakurketa-klub batean parte hartzea</li> </ul> </li> <li>— Gainera, azaldu beharrik ez bada ere, kultura-elkarteetarako emaitzak ere deskribatuko dira, hau da, elkarrizketaren unean kultura-elkarte jakin batean zenbat pertsonak parte hartzen zuten adieraziko da.</li> </ul>
<p><b>Parte-hartze digital harkorra</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>— Parte-hartze digital harkorrak, ingurune horretan horrelako jarduera jakin batzuk modu erregularrean praktikatzearekin du zerikusia.</li> <li>— Honako praktika hauek hartu dira aintzat, 12 guztira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>· Irratia entzutea</li> <li>· Albiste, egunkari edo aldizkariak zuzenean irakurtzea</li> <li>· Jokoak, musika, irudiak edo filmak eskuratu edo deskargatzea</li> <li>· Bideo-jokoekin jokatzeko</li> <li>· Musika entzutea</li> </ul> </li> </ul>



<p><b>Parte-hartze digital harkorra</b></p>	<p>Kasu guztietan, praktiken gaineko ikusmolde bati jarraitzen zaio, barietatearen (aldi kopurua bereizi gabe) eta kantitatearen arteko erlazio estua ezarriz: benetako praktikez ari garenez, barietate handiagoak kopuru handiagoa esan nahi du.</p> <p>Eskalak eraikitzen dira egiten diren jardueren kopurua batuz. Otik (bat ere ez) kasuan-kasuan aintzat hartutako gehieneko jardueren kopururaino (ondorengo zutabearen zehazten da).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musikari, liburuei eta zinemari buruzko informazioa bilatzea</li> <li>• Zuzeneko ikuskizunetarako txartelak erostea</li> <li>• Ikuskizunak zuzenean Interneten ikustea (kontzertuak, dantza, antzerkia,...)</li> <li>• Liburutegi bateko zerbitzuak erabiltzea</li> <li>• Museo, erakusketa eta/edo monumentuetarako bisita birtualak egitea</li> <li>• Webgune edo blog pertsonalak bisitatzea</li> <li>• Wikiak kontsultatzea</li> </ul>
<p><b>Parte-hartze digital aktiboa</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>___ Aldi berean, parte-hartze digital aktiboak gauza bera egiten du bere eremuan.</li> <li>___ Honako praktika hauek hartu dira aintzat, 6 guztira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai kultural edo artistikoei buruzko foroetan parte hartzea</li> <li>• Webgune edo blog pertsonal batean idaztea</li> <li>• Beste artista profesional edo amateur batzuk ezagutu edo haiekin konektatzea</li> <li>• Sare sozialetan gogoeta pertsonalak idaztea</li> <li>• Beste egile batzuekin material artistikoa partekatzea</li> <li>• Nik sortutako material artistikoa partekatzea</li> </ul> </li> </ul>

Parte-hartze kulturalaren inpaktu-aldagaiak

<p><b>Bizitzarekiko gogobetetzea</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitzarekiko gogobetetzearen pertzepzio subjektiboa (1etik, batere gogobetea, 10era, oso gogobetea, bitarteko eskala)</li> </ul>
<p><b>Gizarte-tolerantzia</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sentimendu negatiboak norberarenaz bestelako bizimoduak dauzkaten pertsonenganako (Bai/Ez)</li> </ul>
<p><b>Gizarte-kohesioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera kulturaletatik abiatuta lotura pertsonalak ezartzeko maiztasuna (3 kategoria: Askotan, Noizbehinka, eta Inoiz ez edo ia inoiz ez)</li> </ul>

Parte-hartze kulturalaren aldagai esplikatzaileak

<p><b>1. dimentsioa</b> <b>Haurren sozializazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aitaren ikasketak (5 maila)</li> <li>• Amaren ikasketak (5 maila)</li> <li>• Jarduera kultural harkorrak egitea haurtzaroan (Gutxitik gehiagorako eskala)</li> <li>• Jarduera kultural aktiboak egitea haurtzaroan (Gutxitik gehiagorako eskala)</li> </ul>
<p><b>2. dimentsioa</b> <b>Ezaugarri soziodemografikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adina (Kopurua)</li> <li>• Sexua (Gizona/Emakumea)</li> <li>• Jatorri geografikoa (Mailak, Euskal Herrian (EH) jaiotakotik hasi eta Europar Batasunetik kanpo jaiotakoarekin buka)</li> <li>• Udal-dimentsioa (5 maila)</li> <li>• Administrazio-lurraldea (3 kategoria: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde)</li> <li>• Elebitasuna euskara (Bai/Ez)</li> </ul>



<p><b>3. dimentsioa</b> <b>Egoera pertsonala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ardurapeko seme-alabak</b> (Bai/Ez)</li> <li>• <b>Ardurapeko beste mendeko pertsona batzuk</b> (Bai/Ez)</li> <li>• <b>Astialdia aste barruan</b> (Eskala)</li> <li>• <b>Astialdia asteburuan</b> (Eskala)</li> </ul>
<p><b>4. dimentsioa</b> <b>Kondizio sozioekonomikoa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ikasketa-maila</b> (5 maila)</li> <li>• <b>Mendekotasun ekonomikoa</b> (Bai/Ez)</li> <li>• <b>Lan-egoera</b> (7 kategoria: Lanean, Langabea, Etxeko lanak, Ikaslea, Erretiratu, Beste batzuk)</li> <li>• <b>Diru-sarrerak</b> (Tarteen eskala, neurketa objektiboa)</li> <li>• <b>Zailtasun ekonomikoa hilabete-bukaerara iristeko</b> (Eskala, pertzepzio subjektiboa)</li> </ul>
<p><b>5. dimentsioa</b> <b>Kulturarekiko aurrejoerak</b> <b>(psikologikoak eta materialak)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kulturaren garrantzia pertsonarentzat</b> (Eskala)</li> <li>• <b>Motibazio kulturala</b> (3 kategoria: autoerrealizatzeko, sozializatzeko, errutinatik ateratzeko)</li> <li>• <b>Informazio kultureko maila</b> (Mailak, informazioa aurrejoera markatzen duen "baliabide" gisa).</li> <li>• <b>Interneten erabilera erregularra</b> (Bai/Ez, Internet ezaguna egiten zaion "baliabide" gisa).</li> </ul>

## Aldagai esplikatzaileen estatistiko deskribatzaileak

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aitaren ikasketak</b> (5 maila)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntza (1): % 30,4</li> <li>_Bigarren hezkuntza (2): % 32,7</li> <li>_Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3): % 5,7</li> <li>_LH/Graduak (4): % 11</li> <li>_Unibertsitate-ikasketak (5): % 13,6</li> <li>_Galdutakoak: % 6,4</li> </ul> </li> <li>• <b>Amaren ikasketak</b> (5 maila)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntza (1): % 34,4</li> <li>_Bigarren hezkuntza (2): % 36,2</li> <li>_Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3): % 5,9</li> <li>_LH/Graduak (4): % 7,3</li> <li>_Unibertsitate-ikasketak (5): % 10,8</li> <li>_Galdutakoak: % 5,5</li> </ul> </li> <li>• <b>Hautzaroan egindako kultura-jarduera harkorrak</b> (gutxiagotik gehiagorako eskala)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Gutx.: 0</li> <li>_Geh.: 16</li> <li>_Batezbestekoa: 7,01</li> <li>_Desb. Tipikoa: 3,48</li> </ul> </li> <li>• <b>Hautzaroan egindako kultura-jarduera aktiboak</b> (gutxiagotik gehiagorako eskala)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Gutx.: 0</li> <li>_Geh.: 8</li> <li>_Batezbestekoa: 2,07</li> <li>_Desb. Tipikoa: 1,8</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Adina</b> (Zenbakia)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Gutx.: 15</li> <li>_Geh.: 99</li> <li>_Batezbestekoa: 49,2</li> <li>_Desb. Tipikoa: 18,4</li> </ul> </li> <li>• <b>Sexua</b> (Gizona/Emakumea)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Gizona (0): % 50</li> <li>_Emakumea (1): % 50</li> </ul> </li> <li>• <b>Jatorri geografikoa</b> (Mailak)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_EH (1): % 76,6</li> <li>_Estatu espainola/frantsesa (2): % 17,4</li> <li>_Europa (3): % 1,5</li> <li>_Munduko gainerako herrialdeak (4): % 4,5</li> <li>_Galdutakoak: % 0,1</li> </ul> </li> <li>• <b>Udalerriaren tamaina</b> (5 maila)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_10.000 baino gutxiago (1): % 28</li> <li>_10.000 biztanletik 25.000ra (2): % 19</li> <li>_25.000 biztanletik 50.000ra (3): % 12,5</li> <li>_50.000 biztanle baino gehiago (4): % 7,7</li> <li>_Hiriburuak (5): % 32,9</li> </ul> </li> <li>• <b>Lurralde administratiboa</b> (3 kategoria)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_EAE (1): % 70,1</li> <li>_Nafarroako Foru Komunitatea (2): % 20,3</li> <li>_Iparralde (3): % 9,6</li> </ul> </li> <li>• <b>Elebitasuna</b> (euskara) (Bai/Ez)             <ul style="list-style-type: none"> <li>_Elebakarra (0): % 70,2</li> <li>_Elebiduna (1): % 29,8</li> </ul> </li> </ul>
---	--



- Seme-alabak ardurapean izatea (Bai/Ez)
  - \_Ardurapeko seme-alabarik gabe (0): % 62,1
  - \_Ardurapeko seme-alabak (1): % 37,6
  - \_Galdutakoak: % 0,3
- Mendekotasuna duten beste pertsona batzuk ardurapean izatea (Bai/Ez)
  - \_Ardurapeko beste pertsonarik gabe (0): % 90
  - \_Ardurapeko beste pertsona batzuekin (1): % 9,4
- Denbora libre aste barruan (Gutxiagotik gehiagorako eskala)
  - \_Gutx.: 1
  - \_Geh.: 10
  - \_Batezbestekoa: 5,09
  - \_Desb. Tipikoa: 2,7
- Denbora libre asteburuan (Gutxiagotik gehiagorako eskala)
  - \_Gutx.: 1
  - \_Geh.: 10
  - \_Batezbestekoa: 6,87
  - \_Desb. Tipikoa: 2,6

- Ikasketa-maila (5 maila)
  - \_Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntza (1): % 6,3
  - \_Bigarren hezkuntza (2): % 21,3
  - \_Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3): % 13,6
  - \_LH/Graduak (4): % 25,6
  - \_Unibertsitate-ikasketak (5): % 33
  - \_Galdutakoak: % 0,3
- Mendekotasun ekonomikoa, prestazio publikoen onuraduna (Bai/Ez)
  - \_Ez du mendekotasunik (0): % 89,8
  - \_Mendekoa (1): % 9,6
  - \_Galdutakoak: % 0,6
- Lan-egoera (7 kategoria)
  - \_Ordaindutako lana (1): % 49,5
  - \_Langabea (2): % 7,1
  - \_Etxeko lanak (3): % 4,5
  - \_Ikaslea (4): % 9,4
  - \_Erretiratu, pentsioduna (5): % 27,5
  - \_Beste batzuk (6): % 1,8
  - \_Galdutakoak: % 0,3
- Diru-sarrerak (Tarte-eskala, neurketa objektiboa)
  - \_Gutx.:
  - \_Geh.:
  - \_Batezbestekoa:
  - \_Desb. Tipikoa:

- Hilabete amaierara iristeko zailtasun ekonomikoak (Eskala, pertzepzio subjektiboa)
  - \_Gutx.:
  - \_Geh.:
  - \_Batezbestekoa:
  - \_Desb. Tipikoa:
- Kulturak pertsonarentzako duen garrantzia (Eskala)
  - \_Gutx.: 1
  - \_Geh.: 10
  - \_Batezbestekoa: 7,37
  - \_Desb. Tipikoa: 2,1
- Motibazio kulturala (3 kategoria)
  - \_Sozializatze (1): % 10,1
  - \_Errutinatik ateratzeko (2): % 31,2
  - \_Autoerrealizatze (3): % 58,8
- Kultura-informazioaren maila (Mailak, informazioa alde aurretik duen "baliabide" gisa).
  - \_Batere ez (1): % 4,2
  - \_Gutxi (2): % 29,2
  - \_Nahiko (3): % 49,4
  - \_Asko (4): % 16,6
  - \_Galdutakoak: % 0,6
- Interneten erabilera erregularra (Bai/Ez, Internet "baliabide" gisa, trebatze-mailaren adierazlea)
  - \_Erabilera erregularrik ez (0): % 23,7
  - \_Bai, erabilera erregularra (1):








### Ikerkuntza-teknikak

	<b>1. azterlana: Parte-hartzeko kulturalaren faktore esplikatzaileak</b>
<b>Ikerkuntza-estrategia</b>	Parte hartzeko eredu globala, eta lau eredu partzial: 1. Parte-hartze harkorra 2. Praktika amateurak 3. Praktika digital aktiboak 4. Praktika digital harkorrak
<b>Teknika</b>	Erregresio lineal anizkoitzaren ereduak *
	<b>2. azterlana: Parte-hartzeko kulturalaren inpaktuak</b>
<b>Ikerkuntza-estrategia</b>	Alderatu item bakoitzaren emaitzak, parte hartzeko modu bakoitzerako
<b>Teknika</b>	Batezbestekoen konparazioa, faktore bakarreko ANOVA test bat eta Chi karratuaren eta Cramerren V-aren analisia eginda.

\*Emaitzen atalean ikusi ahal izan den bezala, mendeko aldagaien banaketa ez da normala. Zati garrantzitsuena hondarren banaketa normalean dagoen arren, eta ez aldagaiaren berezko balioenean, eredu linealaren funtzionamendua egiaztatu da, emaitzak poisson eta gamma banaketa binomialerako Orokortutako Eredu Linealen bertsioekin konparatuta; izan ere, gainera, hondarretan desbiderapen garrantzitsuak detektatzen dira kasu batzuetan, aldagaiak banatzen diren eta eraikita dauden moduarekin zerikusia dutenak.

Kasu ezberdinetan aldagaien jokaera ez dela aldatzen ikusita, erregresio lineal anizkoitzaren bitartez egindako hurbilketa mantentzea erabaki da, ereduaren eta ondoriozko estatistikoen arteko alderagarritasunaren aberastasunari eusteko.

Hondarren grafikoak, eredu bakoitzera egokituta (ezkerretik eskuinera, eta goitik behera: Parte-hartzeko harkorraren ereduak, praktika aktiboaren ereduak, eredu digital harkorra, eredu digital aktiboak, eredu globala)





## 2. eranskina: Eredu bakoitzaren estandarizatutako B koefizienteen taula

### Nola interpretatu koefizienteen taulako datuak:

- **Zeinu** positibodun koefizienteek aldagai bakoitzerako parte-hartze handiagoa adierazten dute. Negatiboek, berriz, alderantzizkoa. Mota: "Zenbat eta X handiagoa, orduan eta parte-hartze handiagoa" edo "Zenbat eta X handiagoa, orduan eta parte-hartze txikiagoa". Irakurketa horrek **aldagai jarraituetarako** balio du.
- **Aldagai kategorikoak** (Ikasketak, Sexua, Udalerriaren tamaina...) **erreferentziako kategoriarekin** alderatuta irakurtzen dira. Mota: "Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten pertsonekin alderatuta, X ikasketa dituztenekin alderatuta..." Grafiko bakoitzean adierazten da erreferentziako kategoriarik dagoen, eta kategoria hori zein den.
- Koefizienteak handiak edo txikiak diren balioesteko, besteekiko modu **erlatiboan** irakurri behar dira. Modu absolutuan, 0,02k gutxienerako muga gisa funtziona dezake kasurik gehienetan.
- Koloreen eskalak eragin eta adierazgarritasun handieneko aldagaiak eta kategoriak nabarmentzen ditu.
- Adierazgarritasun estatistikoak izartxoaren eskala bati jarraitzen dio (., \*\*, \*\*\*, \*\*\*\*): zenbat eta izartxo gehiago, orduan eta adierazgarriagoa.

Adierazgarritasun estatistikoaren kodea: 0 '****'   0.001 '**'   0.01 '* '   0.05 '.'   0.1 ', ' ,		Parte-hartze harkorra		Arte-praktikak		Parte-hartze digital harkorra		Parte-hartze digital aktiboa		Parte-hartze globala		
		Koef.	Es.	Adi.	Koef.	Es.	Adi.	Koef.	Es.	Adi.	Koef.	Es.
<b>1</b>	<b>Aitaren ikasketa-maila – Lehen mailako ikasketak edo gutxiago</b>											
	P61_22 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	0,000		0,005		-0,009		-0,035		-0,012		
	P61_23 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	0,014		0,018		-0,015		-0,023		0,005		
	P61_24 LH eta graduak	-0,017		0,016		0,008		0,008		-0,004		
	P61_25 Unibertsitate-ikasketak	0,018		0,010		0,036 *		0,017		0,032 .		
	<b>Amaren ikasketa-maila – Lehen mailako ikasketak edo gutxiago</b>											
	P62_22 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	0,046 .		0,032		0,023		0,043 .		0,054 **		
	P62_23 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	0,031		0,032		0,018		0,032		0,041 *		
	P62_24 LH eta graduak	0,038 .		0,021		0,014		-0,005		0,031 .		
	P62_25 Unibertsitate-ikasketak	0,015		0,030		-0,001		0,002		0,016		



	Heredadoactiv – Haurren sozializazioa kultura aktiboan	0,066 ***	0,146 ***	0,048 ***	0,072 ***	0,111 ***
	Heredadorecep – Haurren sozializazioa kultura harkorrean	0,100 ***	0,055 ***	0,054 ***	0,036 *	0,096 ***
	Sexua- Gizona					
2	P11 Emakumea	0,038 **	0,046 ***	-0,026 **	-0,035 *	0,012
	P2 Adina	-0,038	-0,035	-0,226 ***	-0,277 ***	-0,182 ***
	Jatorria– EH					
	P592 – Estatu espainola/frantsesa	-0,002	0,015	0,019 *	-0,006	0,008
	P593 – Europa	-0,011	0,016	0,011	0,001	0,003
	P594 – Munduko gainerako herrialdeak	-0,042 ***	-0,044 ***	0,019 *	0,065 ***	-0,010
	Udalerriaren tamaina – 10.000 baino gutxiago					
	Habitat2 10.000 biztanletik 25.000ra	0,009	0,073 ***	0,017 .	0,023 .	0,035 **
	Habitat3 25.000 biztanletik 50.000ra	-0,025	0,005	0,036 **	-0,017	-0,006
	Habitat4 50.000 biztanle baino gehiago	-0,029 .	0,021	0,062 ***	0,021	0,009
	Habitat5 Hiriburuak	0,024	0,019	0,062 ***	0,011	0,042 **
	Lurraldea- EAE					
	Esparrua2 Nafarroa	0,015	0,006	0,028 **	-0,001	0,020
	Esparrua3 Iparralde	0,068 ***	0,064 ***	-0,095 ***	-0,060 **	0,001
	Elebakarra					
	Euskaldun1 Elebiduna	0,078 ***	0,018	0,017	0,015	0,062 ***
	Ardurapeko seme-alabarik ez izatea					
3	P61_A1 Ardurapeko seme-alabak izatea	0,000	-0,055 ***	-0,025 *	-0,075 ***	-0,043 ***
	Mendekotasuna duen beste pertsonarik ardurapean ez izatea					
	P62_A1 Ardurapean izatea mendekotasuna duten pertsonak	0,021 .	0,017	-0,022 *	0,040 ***	0,021 *
	P4 Denbora librea aste barruan	0,033 .	-0,020	-0,009	0,007	0,015
	P5 Denbora librea asteburuan	0,011	0,010	0,008	-0,019	0,002





4	Ikasketa-maila – Lehen mailako ikasketak edo gutxiago										
	P63_22 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	0,040	.	-0,003	0,015	-0,003	0,028				
	P63_23 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	0,094	***	-0,006	0,038	*	-0,020	0,057	**		
	P63_24 LH eta graduak	0,093	***	-0,008	0,040	.	-0,016	0,061	*		
	P63_25 Unibertsitate-ikasketak	0,190	***	0,026	0,116	***	-0,002	0,152	***		
	Prestazio sozialik ez jasotzea										
	P641 Prestazio sozialak jasotzea	-0,043	**	0,005	0,011	0,014	-0,020	.			
	Lan-egoera										
	P652 Langabea	-0,006		0,001	-0,034	***	-0,012	-0,014			
	P653 Etxeko lanak	-0,036	**	0,017	-0,004		-0,007	-0,020	.		
	P654 Ikaslea	0,116	***	0,032	0,022		0,032	0,093	***		
	P655 Erretiratua, pentsioduna, ezgaitua	-0,062	**	-0,002	-0,005		0,059	**	-0,022		
	P656 Beste batzuk	-0,009		0,056	***	0,017	.	0,041	**	0,025	*
	P67 Diru-sarrera maila	0,086	***	0,015	-0,012		-0,055	**	0,035	*	
P68 Hilabete amaierara iristeko zailtasun ekonomikoak	-0,034	**	0,027	*	-0,010	0,024	.	-0,009			
P8 Kulturari ematen zaion garrantzi-maila	0,165	***	0,093	***	0,044	***	0,064	***	0,150	***	
5	Kultura-informazio maila – Batere ez										
	P102 Informazio gutxi	0,064	*	0,025	0,062	**	0,035	0,074	**		
	P103 Informazio nahiko	0,199	***	0,015	0,082	**	0,067	.	0,170	***	
	P104 Informazio asko	0,198	***	0,054	,	0,092	***	0,107	***	0,189	***
	Motibazio kulturala - Kultura, sozializatzeagatik										
	clase32 Kultura, errutinatik irteteagatik	-0,008		-0,065	**	0,011		-0,106	***	-0,049	**
	clase33 Kultura, autoerrealizatzeagatik	0,022		-0,001		0,034	*	-0,053	*	0,005	
Internetarako sarbide erregularrik EZ											
P511 Internetarako sarbide erregularra	0,094	***	0,048	**	0,523	***	0,149	***	0,276	***	
<b>R2 – Gaitasun esplikatzailea</b>											
		<b>% 28</b>		<b>% 13</b>		<b>% 63</b>		<b>% 22</b>		<b>% 48</b>	



### 3. eranskina: Parte hartzeko moduaren araberako grafikoak (2. eranskineko taulako koefizienteak)


Parte-hartze harkorraren erregresio-koefiziente (B) estandarizatuak









### Parte-hartze aktiboaren erregresio-koefiziente (B) estandarizatuak (arte-praktikak)







### Parte-hartze digital harkorraren erregresio-koefiziente (B) estandarizatuak












### Parte-hartze digital aktiboaren erregresio-koefiziente (B) estandarizatuak








### Parte-hartze globalaren erregresio-koefiziente (B) estandarizatuak








## 4. eranskina: Dimentsio esplikatzaileen araberako grafikoak (aldagaien xehetasuna)

### Sozializazioaren dimentsioa

Amaren ikasketa-mailak garrantzi handia du, baina beste aldagai batzuk baino txikiagoa (ikus 2. eranskina). Kulturaren transmisioari buruzko literaturan ohikoa da amaren maila aitarena baino iragarle hobea izatea. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketadun amak dituztenek gainerakoek baino gutxiago parte hartzen dute. Ikasketarik gabeko eta ikasketadun amen artean ikusten da etena. Zehaztu behar da ez dela lineala parte-hartzearen eta amaren ikasketa-mailaren arteko erlazioa: amaren ikasketa-maila handiagoa izateak ez du berekin parte-hartze handiagoa ekartzen. Intuizioaren aurkako ondorio horren arrazoia izan daiteke goi-mailako ikasketadun amak dituzten kasu gutxi dagoela. Nolanahi ere, ondorio nagusia da ikasketadun ama izatea modu positiboan lotzen dela parte-hartzearekin, batez ere parte hartzeko modu analogikoekin.


**Erantsitako 4.1. grafikoa.** Amaren ikasketa-mailaren kategoria bakoitzaren garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean



**Oharra:** Interpretaziorako erreferentziako kategoria= Lehen mailako ikasketak edo ikasketarik gabe

Bat datoz haurtzaroko parte-hartze modu nabarmena eta gaur egungoa. Jarduera harkorrek egiteko aukera izan zutenek areagotu egiten dituzte era horietako praktikak helduaroan; gauza bera esan daiteke praktika aktiboei dagokienez jasotako herentziari buruz ere. Modu digitaletan, ordea, pisu txikiagoa du herentzia horrek.

**Erantsitako 4.2. grafikoa.** Haurtzaroko sozializazioak parte hartzeko modu bakoitzean duen garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak)




### Dimentsio soziodemografikoa

- Emakumeen presentzia handiagoa dago modu analogikoetan, eta txikiagoa digitaletan.
- Adinean aurrera egin ahala, parte-hartzea txikiagoa da modu digitaletan. Koefiziente negatiboa du modu analogikoetan ere, baina ez da esanguratsua gisa agertzen (zehatzago aztertze, ikus 2. eranskina).
- Jatorri geografikoari dagokionez, garrantzitsua da "Munduko gainerako herrialdeak" kategoria. Euskal Herrian jaiotakoekiko alde nabarmenak erakusten dituen kategoria bakarra da. Europa baino haratagotik etortitako pertsonen gutxiago parte hartzen dute analogikoan -modu harkorreetan zein aktiboan-, baina gehiago digitaletan.
- Elebiduna izateak efektu positibo esanguratsua du parte-hartze harkorreetan, eta efektu positiboa du gainerako moduetan ere, baina ez horren esanguratsua.




**Erantsitako 4.3. grafikoa.** Hainbat aldagai soziodemografikok parte hartzeko modu bakoitzean duten garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak)



**Oharra:** Kasu bakoitzean, interpretaziorako erreferentziarako kategoria: Gizonak, Euskal Herrian jaiotakoak eta Elebakarrak

- Udalerrriaren tamainari dagokionez, nabarmentzekoa da parte-hartze digital harkorrean duen inpaktua, askoz handiagoa baita udalerrri handietan txikietan baino.
- Lurraldeari dagokionez, EA Erekin alderatuta, Iparraldean gehiago parte hartzen da analogikoan, baina gutxiago digitalean. Horrela, testuinguru geografikoa konpentsatuta gelditzen da parte-hartze globalaren azalpenean.

**Erantsitako 4.4. grafikoa.** Udalerrriaren tamainak eta lurralde administratiboak parte hartzeko modu bakoitzean duten garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak)




**Oharra:** Kasu bakoitzean, interpretaziorako erreferentziarako kategoria: 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak eta EAE

### Egoera pertsonalaren dimentsioa

- Seme-alabak izateak ez efektu negatiborik parte-hartze harkorrean, baina bai parte hartzeko beste moduek; batez ere modu aktiboetan (fisiko zein digitaletan). Erlazio hori ez da horren argia mendekotasuna duten beste pertsona batzuk ardurapean dituztela adierazten dutenen kasuan.
- Norbanakoek adierazitako denbora libreak ez du batere efektu esanguratsurik maila globalean. Garrantzitsua ez den arren, aste barruan denbora gehiago dutela diotenek gehiago parte hartzen dute maila harkorrean, baina gutxiago maila artistiko amateurrean.




**Erantsitako 4.5. grafikoa.** Seme-alabak edo beste pertsona batzuk ardurapean izateak eta bakoitzak duen denbora libreak parte hartzeko modu bakoitzean duten garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak)



## Dimentsio sozioekonomikoa

Ikasketa-maila oso adierazgarria da maila harkorrean. Maila aktiboan, ordea, ez da batere adierazgarria praktika artistikorako, eta are gutxiago praktika digital aktiborako. Jauzi handia ikusten da unibertsitate-ikasketen kategorian.


**Erantsitako 4.6. grafikoa.** Ikasketa-mailaren kategoria bakoitzaren garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean



**Oharra:** Interpretaziorako erreferentziako kategoria = Lehen mailako ikasketak

Lan-egoera zein diru-sarrerak bereziki garrantzitsuak dira maila harkorrerako, baina –salbuespenak salbuespen– ez gainerakoetarako. Lanean dihardutenekin alderatuta, ikasten ari direnek gehiago parte hartzen dute, eta gutxiago erretiratuek/pentsiodunek eta etxeko lanetan dihardutenek. Erretiratuek eta pentsiodunek jarduera aktibo handiagoa dute digitalean, lanean ari diren pertsonekin alderatuta.

**Erantsitako 4.7. grafikoa.** Ordaindutako lanarekiko egoerak duen garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean




**Oharra:** Interpretaziorako erreferentziako kategoria = Ordaindutako lana egiten duten pertsonak

- Prestazio sozialak jasotzeak garrantzia du, koefiziente negatiboarekin, parte-hartze harkorraren kasuan. Ez du garrantzirik gainerakoetan; koefizientea positiboa da, gainera, horietan.
- Zenbat eta diru-sarrera gehiago eta hilabete amaierara iristeko zailtasun txikiagoa, orduan eta handiagoa da parte-hartze harkorra.
- Diru-sarrerak adierazten ez duten arren, hilabete amaierara iristeko zailtasunaren pertzepzioa dagoenean, zenbat eta zailtasun handiagoak, orduan eta parte-hartze aktibo handiagoa (praktika artistikoak edo digitala).





**Erantsitako 4.8. grafikoa.** Behar ekonomikoko hainbat aldagai duen garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean




**Oharra:** Interpretaziorako erreferentziako kategoria: Prestazio sozialik ez jasotzea

### Kulturarako aurrejoeraren dimentsioa

- Pertsonak kulturaren parte hartzeari ematen dioten garrantzia bereziki esanguratsua da parte-hartze harkorra indartzeko, baina baita gainerako parte-hartze guztietarako ere.
- Sozializatze eta esperientzia bizi izateko parte hartu ohi dutenekin alderatuta, errutinatik irteteko parte hartzen dutenek jardura aktibo gutxiago (artistiko analogiko edo digital aktiboak) egiten dute. Sozializatzea helburu dutenekin alderatuta, autoerrealizatzea nahi dutenek gehiago parte hartzen dute maila harkorrean.


**Erantsitako 4.9. grafikoa.** Hainbat aldagai psikologikok duen garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean



**Oharra:** Motibazioaren interpretaziorako erreferentziako kategoria = Kultura, sozializatzeagatik

Informazio kultureko mailak kasu guztietan hobetzen du parte-hartzea, baina gutxiago praktika artistikoetan; praktika horietan, ia ez du garrantzirik informazio gehiago edo gutxiago izateak. Azkenik, Internet erabiltzeak kasu guztietan du efektu positiboa, baina efektu oso handia du maila harkor digitaletan. Kontuan hartu behar da iragazki-aldagai bat zela galdetegian eta, beraz, adierazgarria dela ez izatea garrantzi bera praktika digital aktiboetarako.

**Erantsitako 4.10. grafikoa.** Hainbat baliabide sinbolikok duen garrantzia (estandarizatutako B erregresio-koefizienteak) parte hartzeko modu bakoitzean



**Oharra:** Interpretaziorako erreferentziako kategoria: Interneterako sarbide erregularrik ez izatea eta Batere informaziorik ez izatea



## 5. eranskina: Parte-hartze kulturalaren inpaktuen estatistika-probak

### Bizitzarekiko gogobetetzea

		N	Batezbestekoa	Errorea	Konfiantza-tartea % 95		Adi. F
					Beheko muga	Goiko muga	
Parte-hartze harkorra	0 Multzoa*	2800	7,47	,033	7,40	7,53	0,000
	1 Multzoa**	3426	7,73	,024	7,68	7,77	
	Guztira	6227	7,61	,020	7,57	7,65	
Arte-praktikak	0 Multzoa	4154	7,57	,025	7,52	7,62	0,002
	1 Multzoa	2050	7,70	,032	7,63	7,76	
	Guztira	6204	7,61	,020	7,57	7,65	
Asoziazionismo kulturala	0 Multzoa	4093	7,56	,025	7,51	7,61	0,000
	1 Multzoa	2130	7,71	,032	7,65	7,78	
	Guztira	6223	7,61	,020	7,57	7,65	
Parte-hartze digital harkorra	0 Multzoa	3815	7,56	,027	7,50	7,61	0,000
	1 Multzoa	2354	7,70	,028	7,65	7,76	
	Guztira	6169	7,61	,020	7,57	7,65	
Praktika digital aktiboak	0 Multzoa	4269	7,59	,025	7,54	7,64	0,200
	1 Multzoa	1911	7,65	,033	7,58	7,71	
	Guztira	6179	7,61	,020	7,57	7,65	

\*0 Multzoa = Batezbestekoa baino parte-hartze txikiagoa  
 \*\*1 Multzoa = Batezbestekoa baino parte-hartze handiagoa

### Gizarte-tolerantzia

	Chi karratuaren balioa	Chi karratuaren adi.	Cramerren V-a	Cramerren V-aren adi.	Phi	Phi adi.
Parte-hartze harkorra	13,271	0,000	0,047	0,000	-0,047	0,000
Arte-praktikak	10,150	0,001	0,041	0,001	-0,041	0,001
Asoziazionismo kulturala	11,667	0,001	0,044	0,001	-0,044	0,001
Parte-hartze digital harkorra	35,191	0,000	0,076	0,000	-0,076	0,000
Praktika digital aktiboak	32,670	0,000	0,073	0,000	-0,073	0,000

### Gizarte-loturak sortzea

	Chi karratuaren balioa	Chi karratuaren adi.	Cramerren V-a	Cramerren V-aren adi.	Phi	Phi adi.
Parte-hartze harkorra	361,563	0,000	0,241	0,000	0,241	0,000
Arte-praktikak	269,660	0,000	0,209	0,000	0,209	0,000
Asoziazionismo kulturala	277,293	0,000	0,211	0,000	0,211	0,000
Parte-hartze digital harkorra	199,029	0,000	0,180	0,000	0,180	0,000
Praktika digital aktiboak	196,165	0,000	0,178	0,000	0,178	0,000



# PARTE-HARTZE KULTURALA EUSKAL HERRIAN: MODUAK, ARRAZOIAK ETA INPAKTUAK



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA